- **La noche de la infancia** (Espainia)
  Xixi Sofía Ye Chen (Espainia)
  **Ekoizpena:** Lacima Producciones, The South Project, La Fábrica Nocturna
- **La retirada** (Espainia)
  Tian Riba (Espainia)
  **Ekoizpena:** Sábado Películas
- **Llegó su turno doctor** (Espainia)
  Camilo Valderrama (Espainia)
  **Ekoizpena:** Salon Indien Films
- **Peter** (Espainia)
  Lucía Montero (Espainia)
  **Ekoizpena:** Cornelius Films

# Industria: Lankidetzak

## Nazioartekotzeari buruzko aholkularitzak euskal proiektuentzat

Beste behin ere, Europa Creativa Desk MEDIA Euskadik, Tabakalerak eta Donostia Zinemaldiak nazioarteko bokazioa duten zinema-proiektuetarako aholkularitza saioak antolatu dituzte. Film luze proiektuak garapen eta/edo preprodukzio fasean dituzten ekoizleei zuzenduta, tailer honek nazioartekotzeko eta Donostia Zinemaldian bazkide berriak bilatzeko abiapuntu sendoa eskaini die ekoizleei.

Aurten, Laura Fernández Filmax enpresako bazkide eta ekoizlearen esku egon zen aholkularitza. Bere ekoizpen ezagunenen artean honako lan hauek daude: [REC] 4: *Apocalipsis* (Jaume Balagueró), *No matarás* (David Victori) edo *La ermita* (Carlota Pereda).

Ekoizpen arloko profesionalek aurrez aurreko aholkularitza izan zuten ekainaren 4an eta 5ean.

Aholkularitzetan euskal ekoizle hauek parte hartu zuten:

- **Izaskun Arandia** (Izar Films)
- **Alejandra Arróspide** (Vidania Films)
- **Myriam Ballesteros** (MB Producciones)
- **Silvia Cruz** (Vitrine Filmes)
- **Nagore Eceiza** (El Santo Films)
- **Iñigo Gastesi** (Vidania Films)
- **Julieta Juncadella** (Vitrine Filmes)
- **Gloria Peña** (Gariza Films)
- **Nerea Sciarra** (Gariza Films)
- **Leire Vaz** (Tantak Films)

# Industria: Lankidetzak

## Iberoamerikako LGTBIQA+ zinema-jaialdien topaketa



Iberoamerikako LGTBIQA+ zinema-jaialdien topaketaren irudi bat.

2015az geroztik, eta Sebastiane Sariaren medioz, Gehitu (Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen elkartea) eta Donostia Zinemaldia elkarlanean aritzen dira urtero **Iberoamerikako LGTBIQA+ zinema-jaialdien topaketa** antolatzeko. Topaketa hori industria-jarduerak egiten diren egunetan gauzatu ohi da, eta hausnarketarako eta sare-lanerako esparru bat eratzeko jomuga argia du.

2024an, Argentina, Espainia, Guatemala, Kolonbia, Kuba, Mexiko, Peru eta Uruguaiko 22 zinema-jaialditako 25 programatzaile bildu dira Topaketan.

Topaketak bi helburu ditu: lehenik, ikus-entzunezko sektoreak LGTBIQA+ eskubideen arloan dituen joeren eta erronken inguruan hausnartzea, mahai-inguruen eta kasu praktikoen azterketaren bidez, eta, bigarrenik, Zinemaldian zehar topaketa industria akreditatuei irekitzea.

Gainera, Donostia Zinemaldiaren esparruan, Gehituk bi sari banatu ditu: batetik, Sebastiane Saria, Zinemaldian hautatutako filmen artean LGTBIQA+ kolektiboaren errealitateak, askatasunak eta aurrerapen sozialak hobekien islatzen dituen lan bati ematen zaiona; eta bestetik, Sebastiane Latino Saria, gai berekoa izanik urteko film latinoamerikar bati aitorpen gisa entregatzen zaiona.

Sebastiane Sariaren 25. urteurrena dela eta, igandean 22an, Robin Campilloren *120 battements par minute* filmaren emanaldi berezia egin zen, zuzendari bera eta Nahuel Pérez Biscayart protagonista presentziarekin.

# Industria: Lankidetzak



San Telmo Museoak harrera egin zien Meet Them! ekimenean parte hartu zuten profesionalei.

## Meet them!

Industria Saila nazioarteko zinema arloko zenbait erakunderekin batera elkarlanean ari da. Hori dela medio, Donostiara Zinemaldia gertutik ezagutzera, haien kontaktu sarea zabaltzera eta industriaren jardueretan parte hartzera etortzen diren talde profesionalei harrera egiten zaie.

Edizio honetan Andaluzia, Brasil, Dominikar Errepublika, Euskadi, Galizia, Kolonbia, Nouvelle-Aquitaine, Quebec edo Taiwango profesionalak gonbidatu dituzte ekimen honetara.

## Pitching Korner

Koprodukzio Foroan eta WIPetan hautatutako proiektuen eta filmen aurkezpenak biltzen dituen gunea da Pitching Korner, baita Noka Mentoring eta Open Doors Locarno ataletan hautatutako proiektuak eta Zinemaldiak laguntzen dituen Tabakalerako proiektuak garatzeko programak ere.

Ekimen horietan proiektu hauek hautatu dira:

**Noka mentoring**

- **Altxaliliak** (Frantzia) / Maia Iribarne Olhagarai (Frantzia)
- **Los hombres caballo** (Espainia) / María García Marraco (Espainia)
- **Rosa y Violeta. Void.** (Espainia) / Ainize Sarasola (Espainia)

**Open Doors – TBK – SSIFF**

- **El olor de las paredes** (Peru) / Carlos Ormeño (Peru)

# Industria: Lankidetzak

## Agenda profesionala

- Europako ikus-entzunezko ekosistema indartzeko aliantzak eta inbertsioak (Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikoko Ministerioa).
- Nazioarteko filmazioek Espainian duten eragin ekonomikoari buruzko lehen azterlana (Spain Film Commission eta Profilm).
- Espainiar Zinemaren Eguna eta Spanish Screenings On Tour hirugarren edizioaren aurkezpenak + koktela (ICAA).
- Europa Distribution Workshop.
- Inbertsio pribatua ikus-entzunezkoetan: SEGO CREATIVE, kasu praktiko bat (EGEDA).
- Algo se cuece en Madrid (Madrilgo Erkidegoak eta Madrilgo Udalak antolatua).
- Alda dezagun ikus-entzunezkoa: Aniztasuna eta berdintasuna kameraren aurrean eta atzean. ODA txostena eta Dones Visuals-en gida.
- Audiovisual from Spain: Where Talent Ignites - Topaketa talde artistikoarekin + koktela eta topaketak.
- Andaluzia, zinema-helmuga. Andalucia Film Comission-ek antolatutako Happy Hour-ra.
- Türkiyen filmatzea / Film turkiarrak. Turkiako Gobernuak antolatua.
- Bulgariako, Kroaziako eta Serbiako koprodukzio aukerak ezagutu kafe bat partekatzen. Europako MEDIAko bulegoek antolatua.
- Italia: Koprodukzio eta banaketa aukerak + aperitiboa (ICE – Agencia Italiana para el Comercio Exterior).
- B2B Topaketak: Meet the Italian Delegation (ICE – Agencia Italiana para el Comercio Exterior).
- Europako eta Argentinako ekoizleen elkarteen bilera (European Producer's Club + FIPCA).
- Europa International: banatzaileen europar elkartearen bilera.
- Kanariak Fokuan. Canary Islands Film-ek antolatutako Happy Hour-ra.
- Cinema do Brasil-ek antolatutako koktela.
- Banatzaileen elkarteen bilera (Europa International + Europa Distribution).
- European Producers Club: Board Meeting.
- EAVE PUENTES gosaria.
- *Soy Nevenka / I Am Nevenka* filmaren proiekzio pribatua (inbertitzaileentzat), Elkargi-rekin lankidetzan.
- Case Study: Espainia-Frantzia koprodukzio bat Europa Creativa MEDIA programaren laguntzarekin.
- La Palmako Isla Bonitaren orro narratiboak. La Palma Film Commission-ek antolatua.
- Dokumentalaren oraina eta etorkizuna: ideiak eta ekintzak. ProDocs - Dokumental Ekoizleen Elkarteak antolatua.
- Batzar orokorra ALÍA (Ikus-entzunezko Industriaren Aliantza).

# Industria: Tresnak

## Webguneko Industria atala

Irailaren 2tik aurrera, Industria Sailak edukiak **Industria atalean** jartzen ditu industriako profesional akreditaziodunen eskura Zinemaldiaren webgunean. Industria Sailak gauzatutako jarduerak eta edukiak biltzen dituen gunea da.

Atal honetan honako hauek egin daiteke:

- WIP Latam eta WIP Europa sailetan hautatutako filmak ezagutzea.
- Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroan, Ikusmira Berriak programan eta Zinemaldia Startup Challenge lehiaketan hautatutako proiektuekin *one to one* hitzorduak hitzartzea.
- Industriarekin lotutako jarduera guztietako agenda profesionala eta horietarako sarbidea ezagutzea.
- Industria akreditaziodunak ezagutzea eta bilaketa aurreratuak egitea egonaldi-egunen, jardueraren edo herrialdearen arabera. Horrez gain, Meet Them! eta Iberoamerikako LGTBIQA+ zinema-jaialdien topaketa ekimenetako akreditatuak ezagutzea.
- Zinemaldian hautatutako filmen kontaktuak ikustea eta, horien artean, Espainian salmenta-agenterik edo banaketarik ez dituztenak.
- Industria: Hizketaldiak jardueretara eta Industriako jardueretan hautatutako proiektuen *pitching*etara sartzea, bai eta Pitching Korner gunera ere, non Noka mentoring eta Locarno Open Doors proiektuetan hautatutako proiektuen aurkezpenak izan ziren; Zinemaldia ekimen horien laguntzailea da.
- Industria Jardueren Gida kontsultatzea.

## Bideoteka

Izena eman duten filmak ikusteko aukera ematen die Zinemaldiko **Bideoteka**k industriako profesional akreditatuei, Zinemaldia amaitu eta hilabetera arte. Tresna horri esker, profesionalek aurrez aurre ikusi ezin izan dituzten filmak ikus ditzakete balizko akordioak bultzatzeko.

Bideoteka CinandoVL-ek, Marché du Film-Festival de Cannes-ek sortutako zinema-industriako profesionalentzako plataformak ematen duen zerbitzua da.

Honako film hauek ikusi ahal izan dira:

- Ikusgai egoteko baimena ematen duten Zinemaldiko sail guztietako hautatutako filmak.
- Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroan hautatutako proiekturen bat edo WIP Latam nahiz WIP Europa ataletan hautatutako filmen bat duten zuzendarien lehenagoko film luzeak.
- Plataforman izena emandako film hautatu bakoitzeko, salmenta-eragilearen katalogoko beste film bat, azken urtean ekoiztutakoa.

Elena López Rieraren *Las novias del sur / Southern Brides* izan da Bideotekan gehien ikusi den filma.

**104** film eskuragarri Bideotekan (112 2023. urtean)

**554** ikustaldi Zinemaldiaren 9 egunetan (807 2023. urtean)

**1.610** ikustaldi irailaren 20tik urriaren 28ra arte (2.072 2023. urtean)

# Epaimahaiak

# Epaimahai Ofiziala




Christos Nikou, Ulrich Seidl, Jaione Camborda, Fran Kranz, Leila Guerriero eta Carole Scotta.

Sail Ofizialeko Epaimahai Ofizialak sei sari ematen ditu nahitaez: film onenaren Urrezko Maskorra (ekoizlearentzat), zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra, interpretazio nagusi onenaren Zilarrezko maskorra, taldeko interpretazio onenaren Zilarrezko maskorra, gidoi onenaren Epaimahaiaren Saria eta argazki onenaren Epaimahaiaren Saria. Gainera, Epaimahaiak sari berezi bat emateko aukera du.

- Jaione Camborda, zuzendaria, Espainia (epaimahaiburua)
- Leila Guerriero, idazle eta kazetaria, Argentina
- Fran Kranz, aktore eta zuzendaria, AEB
- Christos Nikou, zuzendaria, Grezia
- Carole Scotta, ekoizela, Frantzia
- Ulrich Seidl, zuzendaria, Austria

# Kutxabank-New Directors Sariaren Epaimahaia

- Philippe Bober, ekoizle eta banatzailea, Frantzia (epaimahaiburua)
- Eduardo Crespo, zuzendari eta programatzailea, Argentina
- Jessica Kiang, zinema-kritikari eta programatzailea, Irlanda
- Izibene Oñederra, zuzendaria, Espainia
- Aulona Selmani, zuzendaria, Suitza

# Horizontes Sariaren Epaimahaia

- Fernando Juan Lima, zinema-kritikaria, Argentina (epaimahaiburua)
- Pedro Hernández Santos, ekoizlea, Espainia
- Valentina Maurel, zuzendaria, Costa Rica

# Zabaltegi-Tabakalera Sariaren Epaimahaia

- Emilie Bujès, Visions du Réel zinema-jaialdiaren zuzendaria, Suitza (epaimahaiburua)
- Hrönn Kristinsdóttir, ekoizlea, Islandia
- Santiago Loza, zinemagilea, Argentina

# Nest The Mediapro Studio Sariaren Epaimahaia

- Albertina Carri, zuzendaria, Argentina (epaimahaiburua)
- Miriam Bantulà - Universitat Pompeu Fabra (Espainia)
- Tuixén Benet - California Institute of the Arts School (AEB)
- Kristoffer Bjerg - Super16 (Danimarka)
- Lila Boudjemai - École des Arts de la Sorbonne - Université Paris 1 (Frantzia)
- Hannah Celeste Francisco -atalyst - Institute for Creative Arts and Technology (Alemania)
- Lai Jingyi - National Taiwan University of Arts (Taiwan)
- Shin Kimura - Tokyo University of the Arts (Japonia)
- Varvara Mashanskaya - Elías Querejeta Zine Eskola - EQZE (Espainia)
- Jordi Morera - National Film and Television School (Erresuma Batua)
- Carmen Pedrero - Emerson College (AEB)
- Marta Sousa Ribeiro - Universidade Católica Portuguesa - Escola das Artes (Portugal)
- Valeria Mery Stecher - Escuela de Cine - Universidad de Chile (Txile)
- Gerard Voltà - EICTV - Escuela Internacional de Cine y Televisión Cuba (Kuba)

# Culinary Zinema Sariaren Epaimahaia

- Irene Escolar, aktorea, Espainia (epaimahaiburua)
- Javier Suárez, kritikari gastronomikoa, Espainia
- Luis Suárez de Lezo, Real Academia de Gastronomía erakundeko presidentea, Espainia

# Eusko Label Sariaren Epaimahaia

- Fredéric Boyer, Tribeca eta Les Arcs zinema-jaialdietako zuzendari artistikoa eta Reykjavikeko zinema-jaialdiko programazio arduraduna, Frantzia (epaimahaiburua)
- Nagore García, HAZIko Komunikazio arloko langilea, Espainia
- Roberto Ruiz, sukaldaria, Espainia

# Loterías Sariaren Epaimahaia

- Emma Suárez, aktorea, Espainia (epaimahaiburua)
- María Núñez, Loterías erakundeko komunikazio arduraduna, Espainia
- José Luis Rebordinos, Donostia Zinemaldiaren zuzendaria, Espainia

# Euskal Zinemaren Irizar Sariaren Epaimahaia

- Itziar Lazkano, aktorea, Espainia (epaimahaiburua)
- Joseba Lopezortega, ZINEBI zinema-jaialdiko zuzendaria, Espainia
- Izaskun Rodríguez, kazetaria, Espainia

# Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko Proiektu Onenarentzako Sariaren Epaimahaia

- Isona Admetlla, kultura-kudeatzailea, Espainia
- Flor Schapiro, komisarioa, Argentina

# RTVE-Beste Begirada Sariaren Epaimahaia

- Elena Sánchez Caballero, RTVEko presidente ohia, Espainia (epaimahaiburua)
- Juana Macías, zuzendaria, Espainia
- Paz Lázaro, ekoizle eta programatzailea, Espainia

# Espainiako Lankidetza Sariaren Epaimahaia

- Enric-Sol Brines i Gómez, AECIDeko komunikazio zuzendaria, Espainia (epaimahaiburua)
- Ricardo Díez Muino, Donostia International Physics Center DIPC-eko zuzendaria, Espainia
- Eva Monente, kazetaria, Espainia

# Euskadi 2030 Basque Country Agenda Sariaren Epaimahaia

- Juan Diego Botto, aktore eta zuzendaria, Espainia (epaimahaiburua)
- Asier Aranbarri Urzelai, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza Sozialaren zuzendaria, Espainia
- Alicia Luna, gidoilaria, Espainia

# Dunia Ayaso Sariaren Epaimahaia

- Elena Martin Gimeno, aktore eta zuzendaria, Espainia (epaimahaiburua)
- Maria Ripoll, zuzendaria, Espainia
- Guadalupe Balaguer, ekoizlea, Espainia

# Palmaresa

# Sari ofizialak - FIAPF

## Film onenaren Urrezko Maskorra

*Tardes de soledad / Afternoons of Solitude* (Espainia) / Albert Serra (Espainia)



Albert Serra, Film Onenaren Urrezko Maskorraren irabazlea *Tardes de soledad / Afternoons of Solitude* pelikulagatik.

## Zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra (ex aequo)

Laura Carreira (Portugal), *On Falling* (Erresuma Batua - Portugal)
Pedro Martín-Calero (Espainia), *El llanto / The Wailing* (Espainia - Argentina - Frantzia)



Laura Carreira eta Pedro Martín-Calero, Zuzendari Onenaren Zilarrezko Maskorra (ex aequo) On Falling eta *El llanto / The Wailing* filmengatik, hurrenez hurren.

## Epaimahaiaren Sari Berezia

*The Last Showgirl* (AEB) / Gia Coppola (AEB)



Pamela Anderson aktoreak eta Gia Coppola zinemagileak Epaimahaiaren Sari Berezia jaso dute *The Last Showgirl* lanagatik.

## Interpretazio nagusi onenaren Zilarrezko Maskorra

Patricia López Arnaiz (Espainia), *Los destellos / Glimmers* (Espainia)



Patricia López Arnaiz, Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorra (*Los destellos / Glimmers*).

# Sari ofizialak - FIAPF

## Taldeko interpretazio onenaren Zilarrezko Maskorra

Pierre Lottin (Frantzia), *Quand vient l'automne / When Fall Is Coming* (Frantzia)




Pierre Lottin, Antzeztaldeko Aktore Onenaren Zilarrezko Maskorra (*Quand vient l'automne / When Fall Is Coming*).

## Gidoi onenaren Epaimahaiaren Saria

François Ozon (Frantzia), Philippe Piazzo (Frantzia), *Quand vient l'automne / When Fall Is Coming* (Frantzia)




François Ozon, Gidoi Onenaren Epaimahaiaren Sariaren irabazlea Philippe Piazzorekin batera *Quand vient l'automne / When Fall Is Coming* lanarengatik.

## Argazki onenaren Epaimahaiaren Saria

Piao Songri (Txina), *Bound in Heaven* (Txina)



Xin Huok zuzendutako *Bound in Heaven* filmeko ekipoa, Argazki Onenaren Epaimahaiaren Saria (Piao Songrirentzat) erakusten.

# Beste sari ofizial batzuk

## Kutxabank-New Directors Saria

50.000 euroko saria da, zuzendariaren eta filmak Espainian duen banatzailearen artean erdibanatzeko.

*Bagger Drama* (Suitza) / Piet Baumgartner (Suitza)

**Aipamen berezia**

*La guitarra flamenca de Yerai Cortés* (Espainia) / Antón Álvarez (Espainia)



Piet Baumgartner zinemagileak irabazi du Kutxabank-New Directors saria *Bagger Drama* lanagatik.

## Horizontes Saria

Horizontes sariaren irabazleak 35.000 euro jasotzen ditu; horietatik 10.000 euro film irabazlearen zuzendariarentzat dira, eta 25.000 euro filma Espainian banatuko duen enpresarentzat.

*El jockey / Kill the Jockey* (Argentina - Mexiko - Espainia-Danimarka - AEB) / Luis Ortega (Argentina)



Nahuel Pérez Biscayart aktorea, Luis Ortegaren *El jockey / Kill the Jockey* filmeko (Horizontes saria) protagonista.

## Zabaltegi-Tabakalera Saria

Zabaltegi-Tabakalera sariaren irabazleak 20.000 euro jasotzen ditu; horietatik 6.000 euro filmaren zuzendariarentzat dira, eta 14.000 euro, filmaren Espainiako banatzailearentzat.

*Aprili / April* (Frantzia - Italia - Georgia) / Dea Kulumbegashvili (Georgia)

**Aipamen berezia**

*Monólogo colectivo / Collective Monologue* (Argentina) / Jessica Sarah Rinland (Argentina)



Francesco Melzi eta Alexandra Rossi, Dea Kulumbegashviliren *Aprili / April* filmaren (Zabaltegi-Tabakalera saria) ekoizleak.

## Nest The Mediapro Studio Saria

10.000 euro hautatutako proiektuaren zuzendariarentzat.

*El reinado de Antoine / The Reign of Antoine* (Kuba - Dominikar Errepublika) / José Luis Jiménez Gómez (Dominikar Errepublika)
Escuela Internacional de Cine y Televisión, Kuba




José Luis Jiménez Gómez zuzendariak Nest The Mediapro Studio saria irabazi du *El reinado de Antoine / The Reign of Antoine* film laburragatik.

# Beste sari ofizial batzuk

## Culinary Zinema Saria

10.000 euroko saria filma banatuko duen enpresarentzat.

*Mugaritz. Sin pan ni postre* (Espainia) / Paco Plaza (Espainia)



Paco Plaza zinemagilea, Culinary Zinema Sariaren irabazlea *Mugaritz. Sin pan ni postre* pelikulagatik.

## Eusko Label Sariak

### Eusko Label Lehen Saria

6.000 euroko saria mikrofilm labur onenari.
*Las guardianas* (Espainia) / Borja De Agüero (Espainia)

### Eusko Label Bigarren Saria

4.000 euroko saria bigarren mikrofilm labur onenari.
*Km 0* (Espainia) / Jon Martija Leunda (Espainia)



Borja de Agüero, lehen Eusko Label sariaren irabazlea *Las guardianas* film laburragatik.

## Loterías Sariak

### Lehen saria

10.000 euroko saria gai sozialeko film labur onenari.
*Anton* (Espainia) / Mikel González Beorlegui (Espainia)

### Bigarren saria

5.000 euroko saria gai sozialeko bigarren film labur onenari.
*Cafunè* (Espainia) / Carlos Fernández de Vigo, Lorena Ares (Espainia)




Loterías Sarien banaketako familia-argazkia.

## Euskal Zinemaren Irizar Saria

20.000 euro filmaren ekoizleentzat.

*Chaplin* | *Espíritu Gitano / Chaplin* | *Spirit of The Tramp* (Espainia - Erresuma Batua -Herbehereak - Frantzia) / Carmen Chaplin (Erresuma Batua)

**Aipamen berezia**

*Erreplika / Replica* (Espainia) / Pello Gutiérrez Peñalba (Espainia)




Carmen Chaplin zuzendaria, ezkerrean, *Chaplin* | *Espíritu Gitano / Chaplin* | *Spirit of The Tramp* (Zinemira; Euskal Zinemaren Irizar Saria) filmaren ekipoarekin batera.

# Beste sari ofizial batzuk

## Donostia Hiria Publikoaren Saria

Saria saileko film bakoitzaren lehendabiziko emanaldi publikoan diren ikusleek ematen dute. Donostia Hiria Publikoaren Sariak bi sari biltzen ditu: Film Onenaren saria, 50.000 euroz hornitutakoa, eta Europako Film Onenaren saria, 20.000 euroz hornitutakoa.

*En fanfare / The Marching Band* (Frantzia) / Emmanuel Courcol (Frantzia)

## Donostia Hiria Publikoaren Saria Europako Film Onenaren Saria

*The Seed of the Sacred Fig* (Alemania - Frantzia - Iran) / Mohammad Rasoulof (Iran)




Emmanuel Courcol zuzendaria, erdian, Donostia Hiria Publikoaren Sari *En fanfare / The Marching Band* filmaren gidoigile eta aktore Irene Muscari eta Pierre Lottinekin batera.

## Gazteriaren DAMA Saria

*Turn Me On* (AEB) / Michael Tyburski (AEB)



Michael Tyburski, *Turn Me On* filmaren zuzendaria (New Directors sailean aurkeztu eta Gazteriaren DAMA saria irabazi zuen pelikulak).

# Industria Sariak




Donostia Zinemaldiko Industria Sariak irabazleen familia-argazkia.

## WIP Latam sariak

### WIP Latam Industria Saria

Best Digital, Deluxe Content Services Spain, Dolby Labs, Laserfilm Cine y Vídeo, Nephilim producciones, No Problem Sonido eta Sherlock Films enpresek bere gain hartzen dute filmaren postprodukzioa DCPra arte, ingelesezko azpitituluekin eta Espainian banatzea.

*Un cabo suelto / A Loose End*, Daniel Hendler (Uruguay), Cordón Films-ek ekoiztua (Uruguay - Argentina)

### WIP Latam onenarentzako EGEDA Platino Industria Saria

30.000 euro ekoizle gehiengodunarentzat.

*Cuerpo celeste*, Nayra Ilic (Txile), Planta-k ekoiztua (Txile - Italia)

## WIP Europa Sariak

### WIP Europa Industria Saria

Best Digital, BTeam Pictures, Deluxe Content Services Spain, Dolby Labs, Laserfilm Cine y Video, Nephilim producciones eta No Problem Sonido enpresek bere gain hartzen dute filmaren postprodukzioa DCPra arte, ingelesezko azpitituluekin, hala badagokio gaztelaniazkoekin eta Espainian banatzea.

Sari hau irabazten duen filmak gainera, WIP Europa Saria ere jasotzen du (10.000 euro).

*Blaue Flecken (AT) / Blue Marks (WT)*, Sarah Miro Fischer (Alemania), Deutsche Film- und Fernsehakademie Berlin GMBH-k ekoiztua (Alemania)

# Industria Sariak

## Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko Sariak

### Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko Proiektu Onenari Saria

Zinemaldiak ematen duen sari hau 10.000 eurokoa da eta ekoizle gehiengodunari ematen zaio.

*Los dos paisajes / The Two Landscapes*, Francisco Lezama (Argentina), Pionera Cine-k ekoiztua (Argentina - Brasil)

### DALE! Saria (Europa-Latinoamerika Garapena)

DALE! Saria (Europa-Latinoamerika Garapena), Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkarteak (EFAD) eta Iberoamerikako Ikusentzunezko Zinematografiako Agintarien Konferentziak (CAACI) ematen dute 10.000 euroko saria da, proiektu irabazlearen produktore gehiengodunarentzat.

*Los dos paisajes / The Two Landscapes*, Francisco Lezama (Argentina), Pionera Cine-k ekoiztua (Argentina - Brasil)

### ArteKino International Prize

6.000 euroko saria proiektu irabazlearen ekoizle gehiengodunarentzat.

*Mar de leva*, Mariana Saffon (Kolonbia), Evidencia Films-ek ekoiztua (Kolonbia - Frantzia)

## Ikusmira Berriak Saria

### SIDERAL Saria

10.000 euroko saria, filma nazioartean banatzeko gutxieneko berme gisa.

*Caro Bastiano / Dear Bastiano*, Maria Elorza (Espainia), Garabi Filmsek ekoiztua (Espainia)

### Casa Wabi-Escine Saria

Bost asteko egonaldi artistikoa Casa Whabin, Puerto Escondidon, Mexikon, lehen edo bigarren film luzea garatzeko.

*Senda*, Mikele Landa Eiguren (Espainia), Mikele Landa Eigurenek ekoiztua (Espainia)

## Zinemaldia Startup Challenge Sariak

### Europako proiektu onena

10.000 euroko saria.

*Sonic Alchemist / Vytis Puronas* (Lituania)

### Espainiako proiektu onena

10.000 euroko saria.

*Dubme* / Alejandro San Agustin Gomara (Espainia)

### Aipamen berezia

*Current Anima* / Javier Amador Lluesma (Espainia)

### Ekintzailetzari aipamen

Dotado con 3.000 euros.

*Kaspar K1* / Esbern Torgard Kaspersen (Danimarka)

Gainera, hautatutako hamar proiektuek dohainik BIC (Business Innovation Centre) bateko inkubaziogunean euren proiektuaren garapena bizkortzeko aukera daukate Euskadiko Parke Teknologikoen Sarean dauden BIC-en batean.

**Beste Industria Sari batzuk**

## XX Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroaren Sariak

### Music Library Saria

*La noche de la infancia*, Xixi Sofía Ye Chen (Txina - Espainia), Lacima Produccionesek - The South Projectek - La Fábrica Nocturnak ekoiztua (Espainia)

### Dogwoof Saria

*Barrabás*, Daniel Martínez-Quintanilla (Espainia - Peru), Muyunak - SUICAfilmsek - Associated Pressek ekoiztua (Espainia - Peru)

### EPE/IBAIA-Elkargi Saria

*Barrabás*, Daniel Martínez-Quintanilla (Espainia - Peru), Muyunak - SUICAfilmsek - Associated Pressek ekoiztua (Espainia - Peru)

# Beste sari batzuk

## RTVE-Beste Begirada Saria

*All We Imagine As Light* (Frantzia - India - Herbehereak - Luxenburgo) / Payal Kapadia (India)

### Aipamen berezia

*On Falling* (Erresuma Batua - Portugal) / Laura Carreira (Portugal)

## Espainiako Lankidetza Saria

10.000 euroko saria. Sail Ofizial eta Horizontes Latinos sailetarako hautatutako filmen artean aukeratzen da, giza garapenari, pobreziaren erradikazioari eta giza eskubideen egikaritze osoari ekarpen onena egiten dien film iberoamerikarraren egilearentzat.

*Sujo* (Mexiko - AEB - Frantzia) / Astrid Rondero (Mexiko), Fernanda Valadez (Mexiko)

## Agenda 2030 Euskadi Basque Country Saria

*Soy Nevenka / I Am Nevenka* (Espainia) / Iciar Bollain (Espainia)




Iciar Bollain zuzendariaren *Soy Nevenka / I Am Nevenka* (Sail Ofiziala) filmaren ekipoa; 2030 Agenda Euskadi Basque Country saria irabazi zuen filmak.

## Dunia Ayaso Saria

*Los pequeños amores / Little Loves* (Espainia - Frantzia) / Celia Rico Clavellino (Espainia)

# Sari paraleloak

## FIPRESCI Saria

*Bound in Heaven* (Txina) / Huo Xin (Txina)

## Feroz Zinemaldia 2024 Saria

*Tardes de soledad / Afternoons of Solitude* (Espainia – Frantzia - Portugal) / Albert Serra (Espainia)

## Euskal Gidoigileen Elkartea Saria

Víctor Erice (Espainia), Michel Gaztambide (Frantzia), *Cerrar los ojos / Close Your Eyes* (Espainia - Argentina)

## Sebastiane 2024 Saria

*Reas* (Argentina - Alemania - Suitza) / Lola Arias (Argentina)



Lola Arias (ezkerretik bigarrena), Sebastiane sariaren irabazle *Reas* (Horizontes Latinos) filmaren zuzendaria; edizio honetan 25 urte bete zituen Sebastiane sariak.

## Lurra – Greenpeace Saria

*The Wild Robot* (AEB) / Chris Sanders (AEB)

## Signis Saria

*Los Destellos / Glimmers* (Espainia) / Pilar Palomero (Espainia)

## Ateneo Guipuzcoano Saria

*Tardes de soledad / Afternoons of Solitude* (Espainia - Frantzia - Portugal) / Albert Serra (Espainia)

## Ohorezko sariak

# Javier Bardem

Aktorea, Donostia Saria



"Maila pertsonalean eta profesionalean hainbeste eman didan zinema-jaialdi honen maitasun guztiarekin jasotzen dut saria"

## Ohorezko sariak

# Cate Blanchett

Aktorea eta ekoizlea, Donostia Saria



“Atzerrian lan egiten duen emakume australiar gisa, hamaika muga zeharkatu eta mundu osoan zehar bidaiatzeko pribilegio izugarria izan dut. Eta ohore bat da Euskal Herrian sari hau jasotzea, kultura eta zinema mugak ere gainditzen dituen zinema-jaialdi zoragarri eta zirraragarri honetan”.

## Ohorezko sariak

# Pedro Almodóvar

Zinemagilea eta ekoizlea, Donostia Saria



“Nire adinean, Donostia Sariak adieraz dezake bide baten amaiera, bide hori egin izanagatik emaniko aintzatespena, baina nik ez dut horrela bizi. Niretzat zinema bedeinkazioa da, edo madarikazioa. Ez zait bururatzen bestelako bizimodurik, ez bada idaztea edo zuzentzea”.

## Ohorezko sariak

# Elena Irureta

Aktorea, Zinemira Saria



“Nik ez dut inoiz saririk espero, saririk onena lanean jarraitzea baita, baina bihotzez eskertzen dizuet nire ibilbideari egindako keinu polit hau”.

SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

# Hizketaldiak

SSIFF 2024
Iraila
Septiembre
20/28
72

# Hizketaldiak

Hizketaldiak Donostia Zinemaldiaren atal bat da. Zinemari buruzko elkarrizketa industriaren, sormenaren eta prestakuntzaren ikuspegitik sustatzeko sortu zen. Tabakaleran du egoitza nagusia (Zinema Aretoa eta Z Aretoa) eta hainbat elkarrizketa ditu. Horiei esker, Zinemaldiak irauten duen bederatzi egunetan, zinemagileen sormen-prozesuetan sakondu daiteke, edo zinema-industriaren joerei eta erronkei buruz jardun daiteke. Era berean, eztabaida sozial nagusiek zineman duten eraginaz eta zinema-jaialdiek gai horietan duten erantzukizunaz eztabaidatzeko gunea da.



Leos Carax Elena López Rierarekin hizketan.

## Nest hizketaldia: Leos Carax

**Irailak 23 (astelehena), Tabakalera, 1. aretoa**

**Leos Carax** (zinemagilea): '*Déjà vu* esperientzia bat izan nuen txikitan uharte batean. Atea ireki eta zera pentsatu nuen, 'Ok. Ni jada izan naiz hemen, eta tipo hori honelaxe ikusi nuen orduan'. Sentsazio hori oso ahaltsua da, eta uste dut nire bigarren pelikula filmatzen ari nintzenean berriro izan nuela behin edo bitan. Horrexen bila nabil orain, sentsazio hori berriz nahi dut izan, baina zaila da. Nolabait esateko, uste dut hori dela zinemaren gauzarik zoragarriena musika egiteko, marrazteko edo idazteko gaitasunik ez dugunontzat. Uharte birjinaren moduko zerbait da, eta dohainik ez baduzu hara joan zaitezke; han ezer gabe den-dena egiteko behar duzuna emango dizute".

TABAKALERA

# Hizketaldiak



Antón Álvarez (C. Tangana), Harto Rodríguez eta Yerai Cortés.



Jane Schoenbrun.

## Nest hizketaldia / Musika eta zinema: La guitarra flamenca de Yerai Cortés

**Irailak 24 (asteartea), Tabakalera, 1. aretoa**

**Antón Álvarez** (zuzendari eta musikaria): “Teknologiak hainbeste gauzatan lagundu digu, ezen aukera amaigabe horien ondorioz dena hilda baitago eta guztiak puntu nazkagarri, tetriko bat baitu... Beldurgarria da flamenko-musikako disko bat entzutea, soinu paregabea duena, esku-zarta ederrekin, edota platoan irudi zainduekin filmatutako eta ondo argiztatutako bideo horiek ikustea... Mugak lagungarriak dirak bizirik dauden eta zirraragarriagoak diren gauzak egiteko”.

**Harto Rodríguez** (musikaria): “Badakit ez naizela inolako berrikuntzarik sartzen ari, baina piano bat grabatzen badut, lurrean mikro bat jartzen dut oinen kolpeak grabatzeko, eta atea irekita uzten dut urruneko auto baten zarata ere entzun dadin. Soinu huts eta garbi-garbia aspergarri samarra iruditzen zait”.

**Yerai Cortés** (musikaria): “Ni ijito peto-petoen mundu batetik nator, eta gero mundu garaikide eta moderno batera joaten naiz. Hitz egiten dudan bakoitzean musika dut buruan: ijito flamenko hutsa versus musika garaikide modernoa... Oso zaila da etiketak jartzea, nor eta zer garen esatea, baina ‘identitate-arazo bat dut’ esaldiari ‘arazo’ hitza kendu nahi nioke, eta horren ordez, ‘Bila nabil’ esan”.

TABAKALERA

BIME ALL ABOUT MUSIC AND MORE

## Nest hizketaldia: Jane Schoenbrun

**Irailak 25 (asteazkena), Tabakalera, 1. aretoa**

**Jane Schoenbrun** (zinemagilea): “Trans izatea identitateaz haraindi doa, politikoa ere bada: mundua bestela eratu daitekeela sinestea dakar berekin. Nik sistema baten barruan lan egiteak ez du esan nahi sistema hori babesten dudanik, eta, hain zuzen ere, etengabe sentitzen dut Hollywoodeko presio asimilazionista, Hollywoodek queer ahotsak gizarte normatiborako gustagarriak eta ulergarriak izan daitezen lortu nahi duena, eta burgesamendu hutsa da hori; tinko eutsi behar diegu gure printzipioei”.

TABAKALERA

# Hizketaldiak



Laura Carreira.



Francine Maisler eta María Laura Berch.

## Nest hizketaldia: Laura Carreira

**Irailak 26 (osteguna), Tabakalera, 1. aretoa**

**Laura Carreira** (zinemagilea): "Ez dakit hainbeste lan egin behar ote dugun. Iruditzen zait gaur egun produktibitatea oso altua dela eta lanean ordu gutxiago sartzeko aukera dugula. Egungo aurrerapen teknologiko ugariak denbora libre gehixeago izateko erabili beharko genituzke".

## Francine Maisler Maria Laura Berchekin hizketan

**Irailak 20 (ostirala), Tabakalera, 1. aretoa**

**Francine Maisler** (casting-zuzendaria): "Aktore guztiekin modu berean lan egiten dut, nola ospetsuekin hala ez hain ezagunekin, baina gogaitu egiten nau izar batzuek kobratzen dutenaren eta bigarren mailako interpreteek irabazten dutenaren arteko desorekak, batzuetan bost elkarrizketa-lerro izan eta eskupekoa baino gehixeago ordaindu ohi baitzaie. Horren aurka borrokatzea gustatuko litzaidake, denei proportzionalki ordaintzea lortu nahi nuke, denek bizimodua atera nahi dutelako maite dutena eginez".

**María Laura Berch** (casting-zuzendaria): "Zinema-jaialdiak oso aproposak dira frogatzeko ikus-entzunezko hizkuntza ere probatzen eta aldatzen ari dela, bai kontakizun motetan, bai kameraren erabileran. Hori gorputz eta aurpegi berrien bidez ikustea zoragarria da gure lanerako".

TABAKALERA 2030

# Hizketaldiak




Alizia Otxoa moderatzailea Sara Mora, Yolanda Serrano, Eva Leira eta María José Zuluetarekin.

## Glamourraren atzean: aktorea kontratratazio-paradigma berrien aurrean

**Irailak 20 (ostirala), Tabakalera-Z aretoa**

**Sara Mora** (abokatua): "Alfonbra gorriko glamourraren atzean aurrera ateratzea kostatzen zaion jende asko dago. Antzezpena bokaziozko lana da, lan egin nahi duzu, baina ezin duzu bizirik iraun. Izan ere, aktore izan nahi duten ia pertsona denek hezkuntzan edo ostalaritzan egiten dute lan dirua ateratzeko".

**Yolanda Serrano** (casting-zuzendaria): "Guk oso ekoizpen handietan egiten dugu lan, eta ezbairik gabe esan dezakegu ez dela egia *influencer* eta *youtuber*rak lanpostuak kentzen ari zaizkiela aktore profesionalei".

Eva Leira (casting-zuzendaria): "Sinestezina da adimen artifizialak egin dezakeena, beldurra ematen du; gauza harrigarriak ikusten ari gara, baina pentsatu nahi dut adimen artifizialak ezingo duela inoiz ikasi gizaki batek hunkitzeko duen gaitasuna".

**María José Zulueta** (managerra): "Gaur egunean, aktoreek den-denetarako lagatzen dituzte euren eskubideak kontratuetan; horrek esan nahi du hezurmamitzen dituzten pertsonaiek edozein motatako adimen artifizialak trebatzeko erabil daitezkeela etorkizunean. Astakeria hutsa da".

EAB Euskal Aktoreen Batasuna



Sean Baker.

## Hizketaldia: Sean Baker

**Irailak 21 (larunbata), Tabakalera-1. aretoa**

**Sean Baker** (zinemagilea): "Zergatik predikatu nahi nuke nire filmekin? Nirekin ados dagoen jendea konbentzitzeko? Gainera, nahiko aspergarria iruditzen zait... Arteak eta zinemak jendea elkartzeko balio behar dute, agian ikuspuntu kontrajarriak edo desberdinak dituzten pertsonen artean eztabaida pizteko; alabaina, predikatzen aritzen banaiz, ideologia horrekin bat ez datozenak baino ez ditut alienatzen. Horregatik, nire filmean politika sartu nahi badut, ezkutuan sartu behar dut: subertsiboa izan behar du, ikus-entzuleek euren ideiak aplikatu ahal izateko bezain irekia".

# Hizketaldiak




Nick Payne, Andrew Garfield eta John Crowley.




Beli Martínez, Inés Nofuentes eta Lara Izagirre Salima Jirari moderatzailearekin.

## Hizketaldia: Andrew Garfield, John Crowley eta Nick Payne

**Irailak 27 (ostirala), Tabakalera-1. aretoa**

**Andrew Garfield** (aktorea): “Uste dut lotsatu egiten gaituela esateak arteak eta istorioak kontatzeak minbizia sendatzeak bezainbeste axola duela. Artea medikuntza da pertsonen arimarentzat. Kultura baten ongizate mentala eta emozionala gobernu batek arteak baloratzeko duen moduaren arabera neur daiteke. Uste hori oso sendoa da arteak, istorioek, zinemak eta antzerkiak behin eta berriz salbatu didatelako bizitza”.

**John Crowley** (zinemagilea): “Lou Reeden letra baten arabera, gauza guztietan magia eta galera pixka bat dago, gauzak berdintzeko. Halako polaritatea filmean ikusten da”.

**Nick Payne** (gidoigilea): “Gidoiak idazten ari naizela, ez diet pertsonaiei kanpotik behatzen. Aitzitik, gelan geratzen naiz haiekin eta, honenbestez, ondo pasatzen badute, pozez zoratzen nago, eta bestela, negar egiten dut haiekin”.

## Ekoizpena ikuspegi feministatik eta intersekzionaletik

**Irailak 23 (astelehena), Tabakalera-Z aretoa**

**Lara Izagirre** (zuzendaria eta ekoizlea): “Nire ametsa zera da, esnatu, zortzi ordu lan egin, sekuentzia bat grabatu eta etxera itzultzea: zero kilometroko zinema egitea. Pixkanaka jardunbide feministagoak eratzen ari gara eta filmaketetan geroz eta hobeki goaz. Zinema egitea eta bizitzea da asmoa, edo zinema egiten bizitzea, baina ez dezala eman zinema egiteagatik bizitzeari uzten diozunik”.

**Inés Nofuentes** (ekoizlea): “Talde txikiekin lan egiten dugu, hein handiagoan lankidetzan funtsatutako lidergoak taxutzen saiatuta eta elkarrekin beste leku batetik erlazionatuta, arreta handiagoa jarriz afektuetan eta zainketetan, kontatu nahi ditugun istorioetan islatzen baita hori, azken batean”.

**Beli Martínez** (ekoizlea): “Zinema egiteko beste modu bat defendatzen dut. Ekoizle gisa obsesionatu egiten nau zer kontakizun aukeratu, zer istorio kontatu, zer-nolako emakumeak erakutsi... Kontakizunetan aniztasun handiagoa behar dugu, kanon bat sortuko baitugu bestela”.

asociación de mujeres de los medios audiovisuales murcia amma
CIMA Asociación de Mujeres Cineastas y de Medios Audiovisuales
Mujer y Animación MIA
Asociación Andaluza de Mujeres de los Medios Audiovisuales AAMMA
Dona i Cinema
Dones Visuals
(H)emen
Agenda 2030 Euskadiren konpromisoa
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

# Hizketaldiak




Clare Baines moderatzailea (ezkerrean) Shani Dhanda eta Justin Edgarrekin.

## Aniztasuna eta inklusioa pantailan eta pantailatik kanpo

**Irailak 24 (asteartea), Tabakalera-Z aretoa**

**Shani Dhanda** (desgaitasuna duten pertsonen inklusioan eta irisgarritasunean aditua, gizarte-ekintzailea eta esataria): "Desgaitasuna duten pertsonak pantailan irudikatuta ikusi nahi ditut: jendea kafea hartzen, elkar maitatzen, gauza normalak egiten, etab. Txikia naizenez eta osasun-arazoekin bizi naizenez, badirudi hori dela nire bizitzaren erdigunea, baina haren zati bat baino ez da, ile gaztainkara izatea bezalaxe. Imajinatzen al duzue ile gaztainkarako pertsonak ordezkatuta ez daudeneko mundu bat?"

**Justin Edgar** (zuzendaria): "Desgaitasunari buruzko narratiba negatiboetatik atera egin beharko genuke. Istorioek askotan alderdi negatiboez hitz egiten dute, baina ez dute taburik jorratzen, hala nola desgaitasuna duten pertsonen arteko maitasuna, euren desgaitasuna maitatzeraino ere irits baitaitezke pertsona horiek".




Len Rowles moderatzailea Nerea Ramírez Piris, Elham Ehsas eta Eneko Muruzabalekin.

## Narratiba berriak: lente klimatikoa zineman

**Irailak 26 (osteguna), Tabakalera-Z aretoa**

**Eneko Muruzabal** (ekonomia zirkularraren eta kulturaren alorreko proiektuen arduraduna Bilibin Circular taldean): "Ezein teknologiak ez dit itxaropenik pizten etorkizun jasangarri eta irisgarriagoa lortzeari dagokionez. Gauzak nola egiten ditugun eta pentsamoldeak nola aldatzen diren izango da benetako iraultza hemendik aurrera, eta ez zein asmakizun teknologiko berri sortzen den".

**Elham Ehsas** (zuzendari eta gidoigilea): "Pertsona batzuek klima-aldaketaren inpaktu handienari aurre egin behar diote eta, hain justu ere, bizitzaren alderdi guztietan –ez soilik zineman– baztertuta geratzen direnak dira pertsona horiek. Garrantzitsua da gizartean ordezkaritza txikia duten pertsonei ahotsa ematen dieten istorioak kontatzea".

**Nerea Ramírez Piris** (Greenpeaceko ekofeminismo-arloaren koordinatzailea): "Aniztasuna da paradigma-aldaketa horretara iristeko funtsezko elementuetako bat. Munduari buruzko begirada desberdinak behar ditugu, emakumeak behar ditugun bezalaxe... Aniztasunak indartsuago eta erresilienteago egiten gaitu, bestela izango ez genukeen informazio berria emateaz gain".

BFI

Agenda 2030 Euskadiren konpromisoa | Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

The Global Entertainment Marketing Academy of Arts & Sciences

Agenda 2030 Euskadiren konpromisoa

# Hizketaldiak




Guy Lodge moderatzailea Wendy Ide, Pepa Blanes eta Diego Batlle kazetariekin.

## Hedabide berriak: zinema eta jaialdiak sare sozialen garaian

**Irailak 27 (ostirala), Tabakalera-Z aretoa**

**Pepa Blanes** (Cadena SER etxeko kultura-arduraduna): "*Influencer* batzuek kobratu egiten dute film bati buruz ondo hitz egiteagatik, eta hori ezkutuko publizitatea da, oso larria. Guk beste zerbait eskaintzen dugu: filmak kritikatu egiten ditugu eta batzuek ez dute kritika ona jasotzen gure aldetik. Ez dugu *influencer* bihurtzen saiatu behar, gainditu egingo baikaituzte bestela".

**Diego Batlle** (kazetaria eta zinema-kritikaria): "Nire kritikak idazten jarraitu nahi dut; hori da egin nahi dudana, baina sare sozialei uko egitea oso purista iruditzen zait. Ni barregarri geratuko nintzateke 55 urterekin *tiktoker* bati imitatzen hasiz gero, baina beste ikus-entzule batzuengana hurbiltzeko tresnak eta moduak luzaroan eratutako nortasuna galdu gabe har ditzaket".

**Wendy Ide** (*The Observer* argitalpeneko zinema-kritikako burua): "Ez da batere osasuntsua, baina sareetan gehiago erakartzen duzu eduki polarizatuekin. Jendeak gehiago konektatzen du zurekin esajeratu edo gorrotatu dezakezunean, eta ikus-entzule gehiago ematen dizkizu pelikula batekin jarrera erradikala baduzu".

# Hizketaldiak

## Industria




Isabel Vázquez moderatzailea Susana Herreras, Laura Sarmiento eta Elías León Siminianirekin.

### Serieen jardunaldia: Loa kentzeko istorioak. Krimenezko serieen arrakasta Espainian

**Irailak 21 (larunbata), Tabakalera, Z aretoa**

**Elías León Siminiani** (ekoizle, gidoigile eta zuzendaria): "*True crime* delakoak marketin-etiketa du neurri handi batean. Plataformen etorrerak ikertzea ahalbidetu du, besteak beste. *El caso Asunta* lanarekin, esaterako, plataformek produktu senideak eskatzen dituzte: fikzio bat eta dokumental bat".

**Laura Sarmiento** (sortzaile eta gidoigilea): *El cuerpo en llamas* filmean ikuspuntuak beldur handia ematen zidan: pertsonaien azterketa bat izan zitekeen edo, beharbada, oso gauza barregarria. Baina oso pertsonaia identifikagarriak dira, eta horrexek erakarri zidan telesaila idaztera. Erabateko fikzioa izango balitz, ni krudelagoa izango nintzen pertsonaietako batekin, baina babestu egin nahi nuen ingurua.

**Susana Herreras** (ekoizlea): "*Querer* ez da *true crime* bat, baina hilabete asko eman genituen ikertzen. Ikuspegia hiperrealista da, bai arlo emozionalean, bai arlo juridiko-legalean, erreala ez den baina egia den kasu bat taxutzeko".

europa creativa | desk euskadi MEDIA




'Europako ikus-entzunezko ekosistema sendotzeko aliantzak eta inbertsioak' mahai ingurua.

### Europako ikus-entzunezko ekosistema indartzeko aliantzak eta inbertsioak

**Irailak 22 (igandea), Prentsa Kluba, Kursaal**

**Alfonso Blanco** (Portocaboko zuzendari nagusia): "Telesailen munduan koprodukzioak oso modu organikoan jazotzen dira, kontsumoak hazkunde transbertsala izan duelako. Ohikoa da plataformetan mundu osoko edukiak ikustea, eta Canal Arte kanalari *Hierro* eta horrelako edukiak interesatzen bazaio, badaki ikus-entzuleak izango dituela".

**Sandra Tapia** (Arcadia Motion Pictures ekoiztetxeko ekoizle exekutiboa): "*As Bestas* jatorrizko bertsioan eman zen, *prime time* ordutegian, Espainiako Telebistan. Ia milioi bat ikus-entzule izan zituen, eta horrek agerian uzten du hizkuntza- eta kultura-politikek industriarekin batera joan behar dutela".

**Jérôme Vidal** (Noodles Production ekoiztetxeko ekoizle exekutiboa): "Gure hurrengo filmean, Eslovenia, Polonia eta halako herrialdeekin koprodukzioak egingo ditugu, koprodukzioaren bidez pelikulak".

#Spain AVSHub

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO PARA LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL Y DE LA FUNCIÓN PÚBLICA

# Hizketaldiak

## Industria



Do Bofill, Charli Bujosa Cortés, Afioco Gnecco eta Emilio Papamija moderatzailea.

### Errealitate transmaskulinoak zinema iberoamerikarrean barneratuz

**Irailak 24 (asteartea), Ekitaldi aretoa, San Telmo Museoa**

**Ignacio Amador Rodríguez** (aktorea *Reasen*): “Ikus-entzunezkoen industria oso-oso berritzailea izan daiteke ni bezalako mutilei deituz, ezinbestean trans izatearekin lotuta ez dauden rolak egiteko. Benetako aldaketa bat lortzeko itxaropena dagoela pentsatzea gustatzen zait”.

**Charli Bujosa Cortés** (ekoizlea): “Eskerrak eman behar dizkiet laorategi eta egonaldi-programa askori, hasieran ez baitzen erraza izan gune horietara iristea”.

**Afioco Gnecco** (zuzendari eta gidoigilea): “Gizon transak garenez, sentitzen dugu ez dugula gune hau irabazi. Emakume gisa hezi gintuztenez ez gara ausartzen halako guneak hartzera. Lehiaketa edo dirulaguntzaren bat irabazten dugu eta pentsatzen dugu agian transak izateagatik edo kuota bat betetzeagatik ematen ari zaizkigula”.

**Do Bofill** (casting-zuzendaria): “Aktore gisa, gizon transa izatea zer den ezartzen duten estereotipoei egin behar diezu aurre”.

25 Sebastiane Gehitu

Agenda 2030 Euskadiren konpromisoa



James Verdesoto.

### James Verdesoto. Istorioak kontatzeko artea: Film ikonikoen kartelak

**Irailak 24 (asteartea), Tabakalera-Z aretoa**

**James Verdesoto** (Indika Entertainment Advertising taldeko sorkuntza-zuzendaria): “Nire lanaren zati bat da une jakin bat aurkitzea non, 150.000 fotogrametako batean esan dezakedan: ‘Hori poster bat da’. Orokorki, film bat amaitzean, nabarmentzekoak diren bost bat unerekin geratzen naiz, agian gaiarekin lotura handia dudala sentitzen dudalako, edo beharbada paisaiarekin, arte-zuzendaritzarekin, aldagelekin edo pertsonaiekin maitemintzen naizelako. Guretzat, proiektu guztiak esperimentuak dira. Harridura sentitzeko gaitasuna bizirik mantentzen dugu etengabe... Pelikula bakoitza istorio desberdin bat baita, leku eta denbora desberdin bat, aldi bakoitzean bidaia esperimental bati ekitearen antzeko zerbait”.

THE GLOBAL ENTERTAINMENT MARKETING ACADEMY OF ARTS & SCIENCES

# Hizketaldiak

## Industria




AC Coppens moderatzailea Judith Membrives i Llorens, Margarita Grubina eta Ignacio Lacostarekin.

### Adimen artifizial sortzaileak hobeto bizitzen laguntzen al gaitu?

**Irailak 26 (osteguna), Tabakalera Prisma**

**Margarita Grubina** (enpresa-hazkundeko lehendakariordea Respeecher konapinian): “Adimen artifizialaren erabilerak hiru joera ditu. Lehenik, gehiago dakigu adimen artifiziala zer den eta zer-nolako erabilera arduratsuak izan ditzakeen. Bigarrenik, jendea bere produktu eta proiektuetan adimen artifiziala baliatzen hasi da. Eta hirugarrenik, araudiari dagokionez, legeak sortzen ari dira adimen artifizialaren okerreko erabileraren ondoriozko iruzurraren aurka borrokatzeko, eta etorkizunean arau zorrotzagoak ere egongo dira”.

**Ignacio Lacosta** (VFXen ikuskatzailea): “Egia da adimen artifizialak denbora asko aurrezten digula, baina jada ez dira behar bost pertsona hiru astez, adibidez, hodei baten 100 modelo sortzeko”.

**Judith Membrives i Llorens** (ikertzailea eta Algorightsen kide fundatzailea): “Adimen artifiziala ez da ez artifiziala ez adimentsua. Inpaktu materialak eta sozialak ditu, besteak beste. Artisauagoak liratekeen beste ikuspegi batzuetan pentsatu beharko genuke, ingurumen-baliabideen eskasia kontuan izanik. Inbertsio publikoa behar dugu Europako azpiegiturak sortu eta besteen mende ez egoteko”.

# Erakusketak eta beste ekintza batzuk

# Erakusketak eta beste ekintza batzuk

## Erakusketak



Jessica Sarah Rinland, erakusketaren kartelaren aurrean.

### Jessica Sarah Rinland: ‘Extramission: begi distiratsuen ehizan’

**2024/09/17-2025/01/12, Tabakalera-2. erakusketa aretoa**

Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak, Rotterdamgo Nazioarteko zinema-jaialdiarekin (IFFR) eta Donostia Zinemaldiarekin elkarlanean, *Extramission: Begi distiratsuen ehizan* erakusketa antolatu zuen, Jessica Sarah Rinland errealizadore argentinar-britainiar ezagunarena.

Gainera, Jessica Sarah Rinlandek, Ikusmira Berriak programan egonaldia egin zuenak, *Monólogo colectivo / Collective Monologue* bere azken film luzea erakutsi zuen Donostia Zinemaldian, Zabaltegi-Tabakalera sailaren barruan (sailaren aipamen berezia lortu zuen lanak).

*Extramission: Begi distiratsuen ehizan* erakusketaren alderdi nagusietako bat hauxe da, Rinlandek mugimendudun irudi berriak eta audio-grabazioak uztartzen dituen modua XX. mende hasierako *National Geographic* aldizkarietako orrialdeekin.

Rinlanden instalazio audiobisualak, Tabakalera komisario duenak, bi kanaleko bideoa biltzen du; bakoitza hamar minutukoa eta zuri-beltzean proiektatuak pista anitzeko soinuarekin. Lehen pantaila Londresko Historia Naturalaren Museoan grabatu zen, kamera termikoak erabiliz, jatorrian ehizan eta zaintzan erabiltzen ziren teknologiekin, alegia. Kamera horiek kontserbatzaileen lana jasotzen dute; hauek animalia-ale disekatuak zaharberritzen ari dira, lekualdatuak izan aurretik. Bideoan, kontserbatzaileen eskuek, kamera termikoan zehar ikusita, distira egiten dute animalien gorputz geldi eta hotzekin kontrastean. Horrela, gizakiaren eta naturaren arteko harremanari buruzko metafora bisual bat sortzen da.

Bigarren proiekzioa infragorriekin grabatutako irudietan oinarritzen da. Rewilding Argentina Fundazioak emandako irudiak dira. Bertan, animalia-espezieak beren habitat naturaletan berriz sartzeko prozesua dokumentatzen da, Europan gatibualdian egon ondoren.

# Erakusketak eta beste ekintza batzuk

## Erakusketak



Maximiliano Schonfeld, Edurne Ormazabal Tabakalerako zuzendari nagusiaren eta José Luis Rebordinos Donostia Zinemaldiko zuzendariaren artean.

### Maximiliano Schonfeld: 'Itzal handia / Sombra grande / Big Shadow'

**2024/09/20-2024/09/28, Tabakalera-1. solairua**

Donostia Zinemaldiak eta Tabakalerak Maximiliano Schonfeld zinemagile argentinarraren *Itzal handia / Sombra grande / Big Shadow* bideoinstalazioa antolatu zuten. Izen bereko bere filmaren mundu-estreinaldia Donostia Zinemaldiaren 72. edizioko Zabaltegi-Tabakalera sailean izan zen eta bideoinstalazioa lan horretan inspiratuta dago, hain zuzen ere.

Schonfelden filma ez-fikziozkoa da, duela gutxi arte galdutzat jotzen zen hizkuntza indigena bat, chana, berriz deskubritzetik abiatzen dena. Argentinan pertsona bakar batek hitz egiten zuen chana hizkuntza: Blas Jaimek. Handik gutxira hiztegiak argitaratu ziren eta hizkuntza erabat berreskuratu ahal izan zen. Gizon horrek chanatarrak Entre Ríos probintzian kokatu zituen, Volgako alemaniarren gaur egungo ondorengoak beren hizkuntza germaniarra galtzen ari diren leku horretan, hain zuzen.

Leku berean bizi diren bi kulturen arteko tentsio horrek elikatzen ditu bai filma eta bai bideoinstalazioa. Blas Jaimeren presentzia da nagusi bertan, erdiko pantailatik hitz egiten baitu filmean chanatarren rola egiten duten aktoreekin. Chanatarrak gunean zehar sakabanatuta agertzen dira hainbat telebistatan, eta espresio bat, erritmo bat eta soinu-paisaia bat erakusten dituzte, chanatarren asentamendu bat irudikatuz, dauden deskribapen historiko urrietan funtsatuta.

"Instalazioak soinuen bidez birsortu nahi du, lehen aldiz, ustez Entre Ríos probintzian kokatuta dagoen kokaleku chanatar bat, Sebastian Gaboto XVI. mendeko itsasgizon, kartografo eta esploratzailea iritsi aurretik. Horretarako, berreskuratutako hizkuntza hori hitz egiten ikasi zuten pertsona bakarrengana jo eta garai hartako faunaren inguruan lan egin genuen", azaldu du Schonfeldek.

# Erakusketak eta beste ekintza batzuk

## Beste ekintza batzuk




Antonio de la Torre aktorea izan zen Zinekin saioko anfitrioia.

### Emanaldia: Zinekin

**2024/09/21, Trueba Zinema-aretoak (1. aretoa)**

Zinekin, Zaragueta Zulaica Fundazioak abiarazitako eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako proiektua (Lankidetza), ikus-entzunezko ikaskuntzan oinarritutako programa da, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak ahalduntzeko baliabide gisa.

Lankidetzazko tailer eta praktiken bidez, parte-hartzaileek prestakuntza praktikoa jasotzen dute zinema-alorrean, euren istorioak kontatzeko sormen-trebetasunak eta teknikak garatzeko. Sektore zinematografikoko profesionalekin lankidetzan aritzeak aukera ematen du aurreprodukzioaren, filmaketaren eta postprodukzioaren etapa guztietan murgiltzeko, inklusioa eta aniztasuna sustatzen dituen prestakuntza-esperientzia paregabe bat eskainiz, talde-lanean funtsatuta betiere.

Zinemaldian *La Influencer* eta *Tiroteo* film laburrak eman ziren; tailerretako ikastle guztiek hartu dute parte film horien sorkuntzan, ideiatik hasi eta edizioraino.




### Emenaldia: XXXVI. Bideoaldia

**2024/09/26, Trueba Zinema-aretoak (2. aretoa)**

2023/2024 ikasturtean Larrotxene kultur etxean egindako lanen erakustaldia.

- *Print* (Edgar, Unax Santos)
- *El síndrome de la página en blanco* (Blanca Zaragüeta, Josean Gómez)
- *Mucalinda* (Fabián Bojkovsky)
- *Mi amigo Julio* (Irene Royo)
- *Fuego Fatuo* (Nahia, Iulen Arana)
- *Sunglasses* (Itziar Eguiguren)
- *Kononi* (Mikel S. Galarza, Cesare Maglioni)

# Erakusketak eta beste ekintza batzuk

## Beste ekintza batzuk



Audi Future Stories jardueraren familia-argazkia.



Nicolas Gil Lavedra zuzendaria eta Zoe Hochbaum ekoizlea.

### Emanaldia: Audi Future Stories

**2024/09/27 Príncipe Zinema-aretoak (10. aretoa)**

Audi Future Stories film labur zinematografikoetarako gidoien lehiaketa Donostiara itzuli zen Alejandro Pereirak –IV. Edizio honetako irabazleak– sortutako *Huir* lanarekin. *Thriller* hori irailaren 27an estreinatu zen, 10:30ean, Donostiako Principe zinema-aretoetan. *Première* horretan izan ziren, besteak beste, Kike Maíllo zinema-zuzendaria, Audi Future Stories lehiaketako epaimahaikide eta film laburraren zuzendarikidea, eta Alvaro Cervantes eta Elena Rivera aktore protagonistak.

### Emanaldia: 'Traslados' (Zinema argentinarrari laguntzeko jardunaldia)

**2024/09/24, Príncipe Zinema-aretoa (9. aretoa)**

Zinemaldiak zinema argentinarrari laguntzeko jardunaldi bat antolatu zuen irailaren 24an, Diego Lermanen *El hombre que amaba los platos voladores* filma Sail Ofizialean estreinatzearekin batera. Zuzendaritza-koktelean harrera egin zitzaion Argentinako delegazioari, kontzentrazio bat egin zen Kursaal Auditoriumeko eskaileretan eta ondoren *Traslados* filma eman zen Príncipe zinema-aretoetan. Nicolás Gil Lavedrak zuzendutako ez-fikzioa Donostian izan zuen nazioarteko estreinaldia; "heriotzaren hegaldi" deritzenak aztertzen ditu egileak bere obran, "Argentinako azken diktadura zibiko militarrak pertsonak hiltzeko eta desagerrarazteko baliatu zuen metodologiarik krudel eta eraginkorrena". Emanaldiarekin batera filmaren aurkezpena eta solasaldia egin zen, zuzendaria bera eta Zoe Hochbaum ekoizlea bertan izan zirelarik.

# Erakusketak eta beste ekintza batzuk

## Beste ekintza batzuk



Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregi, ezkerrean, Urbileko agintari eta arduradunekin.

### Emanaldiak: Euskal zinema zikloa Urbilen

**2024/09/20-2024/09/28, Cinesa Urbil Zinema-aretoak**

Donostia Zinemaldiaren eta Zinemira sailaren babesle Urbilen lankidetzaren ondorioz, euskal zinemaren ziklo bat eskaini zen Cinesa Urbileko aretoetan. Programazioak lau euskal ekoizpen bildu zituen; Irizar Sariaren irabazleak izan ziren laurak, eta azken aldiko euskal zinemako arrakastatsuenetakoak, kritikaren eta ikus-entzuleen artean:

- *La trinchera infinita / The Endless Trench* (Aitor Arregi, Jon Garaño, Jose Mari Goenaga)
- *Maixabel* (Iciar Bollain)
- *Ane / Ane Is Missing* (David Pérez Sañudo)
- *El sueño de la sultana / Sultana's Dream* (Isabel Herguera)




*Daughter of Dunhuang*eko ekipoa, alfonbra gorrian.

### Emanaldia: Opera txinatarra (*'Daughter of Dunhuang'*)

**2024/09/27, Príncipe Zinema-aretoak (9. aretoa)**

*Daughter of Dunhuang* operaren emanaldia, Fan Jinshi arkeologo eta Dunhuangeko Akademiako ohorezko presidentearen, haren ikerlanaren eta haren kultur ondarea babesteko lanaren inguruan.

# Erakusketak eta beste ekintza batzuk

## Beste ekintza batzuk



Robin Campillo zuzendariak eta Nahuel Pérez Biscayart aktoreak Sebastiane sariaren 25. urteurrenean parte hartu zuten.

### Emanaldia: ‘120 battements par minute’ (Sebastiane Saria)

**2024/09/22, Príncipe Zinema-aretoak (2. aretoa)**

2000ko irailaren 30ean Gehitu Euskal Herriko gay, lesbiana, bisexual, trans eta intersexualen elkarteak lehen Sebastiane Saria eman zuen Donostia Zinemaldiaren esparruan, “homosexualitatearen errealitate soziala” hobekien islatzen zuen filma aitortzeko. *Krámpack* pelikulatik (Cesc Gay, 2000) *20.000 erle espezie / 20,000 Species of Bees* filmera (Estibaliz Urresola, 2023) –hots, saritutako lehenengo lanetik azkenekora–, elkartearekin berarekin bat etorriz, aintzatespen-eremua zabaldu egin da, LGBTIQA+ kolektiboko trans, bisexual eta intersexualen errealitateei, askatasunei eta aurrerapenei erreparatuta eta, horrenbestez, kolektiboko letra guztiak barne hartuta.

Sari aitzindari honen 25. urteurrena ospatzeko, Sebastiane Sariaren 2017ko irabazle *120 battements par minute* filmaren emanaldi berezi bat egin zen irailaren 22an (igandea) Principe Zinema-aretoetan, eta filmaren zuzendari Robin Campillo eta antzezle protagonista Nahuel Pérez Biscayart han izan ziren.



Tokioko Cervantes Institutuko Victor Andresco (ezkerrean) eta Javier Fernandez (eskuinean), Daniel Aguilar (mikrofonoarekin) eta Jose Luis Rebordinosekin batera.

### Emanaldiak: Donostia Japonian (SSIFF eta Tokioko Cervantes Institutua)

**2024/11/20-2024/11/22, Tokio eta Hokkaido**

Donostia Zinemaldiak eta Tokioko Cervantes Institutuak Donostia Japonian: SSIFF eta Tokioko Cervantes Institutua jarduera-programa bultzatu zuten. Bertan, zinema-emanaldi bat egin zen Japoniako hiriburuan, Hokkaidoko Zinema Gastronomikoaren Jaialdian parte hartzeaz gain.

Hautatutako filma Paco Plazaren *Mugaritz. Sin pan ni postre* izan zen, Zinemaldiaren 72. edizioan Culinary Zinema Saria irabazi zuena. Tokioko emanaldiaz gain (azaroaren 20an), 22an *Mugaritz. Sin pan ni postre* pelikulak inauguratu zuen, Sapporon, Hokkaidoko Zinema Gastronomikoaren Jaialdia.

Hokkaido, Japoniako uharteen artean bigarren handiena, herrialdearen iparraldean dago, eta topografia, kokapena, korronte ozeanikoak eta urtaro-haizeak direla-eta, natura eta kultura aski bereziak ditu; izan ere, herrialdearen elikadura-oinarri izan da Hokkaido luzaroan. Hokkaidoko Zinema Gastronomikoaren Jaialdiaren lehen edizioa azaroaren 22tik 24ra egin zen, parte-hartzaileak, zinemaren munduko profesionalak, sukaldariak, ekoiztetxeak eta Hokkaidoko industria gastronomiko eta turistikoko ordezkariak konektatzeko plataforma izan zedin.

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Instituto Cervantes Tokio

# Erakusketak eta beste ekintza batzuk

## Beste ekintza batzuk



Gipuzkoa Coopera tailerretako Argentinako irudi bat.

### Ikus-entzunezko tailerrak: Gipuzkoa Coopera Kolonbian eta Argentinan

**(2024ko martxoa-urria eta marxoa-abendua)**

2017az geroztik, Donostia Zinemaldiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean dihardute Gipuzkoa Coopera lankidetza-programa garatzeko. Programa horren barruan, Zinemaldiak ikus-entzunezko tailerrak antolatzen ditu Latinoamerikako eskoletan, bazterketa-arriskuan dauden ikasleekin. Ione Hernández zinemagileak, Zinemaldiko Hautespen Batzordeko kideak, proiektua zuzentzen du eta zuzendaritza eta gidoi tailerrak koordinatzen ditu, baita gainerako diziplinetako profesionalen lantaldea ere: argazkilaritza, soinua, muntaia eta arte zuzendaritza.

Aurrez aurreko tailerrak irailean egin ziren Bogotako (Kolonbia) Gran Colombiano ikastetxean eta urrian Mar del Platako (Argentina) San Sebastián izeneko 37. Eskolan. Bi ikastetxeetan 40 ikasleko taldeak osatu ziren, eta, kasu bakoitzean, bi film labur egin zituzten hasieratik bukaerara. Aurrez aurreko tailerrez gain, urte osoan zehar *online* tutoretzak ere egin dira, proiektuari jarraipena emateko eta edukiak aberasteko.

Tailerren finantzaketa Donostia Zinemaldiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dago; izan ere, beharrezko materiala eman dute –kamerak, lenteak, argiztapen eta soinu tresnak, grabagailuak, mikrofonoak…–, ikasleak ikus-entzunezko lan bat sortzeko orduan autonomoak izan daitezen.

GIPUZKOA

# Erakusketak eta beste ekintza batzuk

## Beste ekintza batzuk



Pilar Palomero, Paco Plaza eta Iciar Bollain zuzendariak Marta Berenguer, Aina Picarolo eta Lorena Lopez aktoreekin Argentinan.

### Emanaldiak: MASS (Espainiako zinemaren zikloa Argentinan eta Uruguain)

**2024/11/28-2024/12/04**

Donostia Zinemaldiak, Málagako zinema-jaialdiak eta Orca Films ekoiztetxe argentinarrak MASS bultzatu zuten, Buenos Airesen azaroaren 28tik 30era programatu ziren ekoizpen espainiarreko sei filmen zikloa. Emanaldiak abenduaren 2tik 4ra errepikatu ziren Uruguain, eta egun horietan Ventana Sur Latinoamerikako ikus-entzunezko edukien merkatu garrantzitsuena hartu zuen herrialde horrek. Jarduera horrek Espainiako Kultura Ministerioaren lankidetza du, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Espainiako Erakundearen (ICAA) bitartez, eta zinema espainiarraren nazioartekotzea babestearen eta bi zinema-jaialdiak Argentinako industriarekin lankidetzan aritzearen esparruan gauzatu zen.

José Luis Rebordinos eta Juan Antonio Vigar Donostia Zinemaldiaren eta Málagako zinema-jaialdiko zuzendariez gain, Espainiako ordezkaritza bat Buenos Aires eta Montevideo hirietara bertaratu zen pelikulen ordezkari gisa. Donostia Zinemaldiak Sail Ofizialeko bi film eman zituen (*Soy Nevenka / I Am Nevenka* eta *Los destellos / Glimmers*) eta Culinary Zineman irabazi zuen *Mugaritz. Sin pan ni postre*. Málagako zinema-jaialdiaren programazioari dagokionez, honako hauek aurkeztu ziren: *Segundo premio / Saturn Return, Nina* eta *La casa*.

Argentinan egon ziren bitartean, Donostia Zinemaldia eta Málagako zinema-jaialdia Buenos Aires, Entre Ríos eta Santiago del Estero probintzietako ordezkariekin bildu ziren, zinema espainiarranen eta argentinarraren arteko trukea eta harremana sustatzeko lankidetza-hitzarmen baten diseinuan lan egiteko.

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

# Z365, urte osoko Zinemaldia

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## 365 eguneko zinemaldi bat

Donostia Zinemaldiak denbora asko darama adierazten Zinemaldia bi gauza dela berez. Alde batetik, Zinemaren munduko ospakizun komunitario bizi bat da, Donostian iraileko bederatzi egunetan zehar gertatzen dena. Hala, komunitateak eta herritarrek aukera dute, Zinemaldian zehar, filmak lehenbiziko aldiz deskubritzeko, eta industria zinematografikoa eta komunikabideak negozioa egiteko eta ideiak eta esperientziak trukatzeko elkartzen dira, halaber, Zinemaldian.

Bestetik, zinemaren alorreko prestakuntza eta ezagutzen transmisioa sustatzeko, proiektu zinematografikoen garapenean lagun egiteko eta ikerketa eta dibulgazioa bultzatzeko urteko 365 egunetan lan egiten duen erakundea ere bada. Horrenbestez, Zinemaldia ekitaldi gisa existitzen da eta, bestetik, Zinemaldia erakunde gisa. Eta Z365 eremua, edo urte osoko Zinemaldia, hain justu ere, Zinemaldiaren Erakunde gisa identifikatzen dugun hori da.

Z365en egutegian zabaldutako jarduera hau Zinemaldiak Tabakaleran dituen bulegoen kokapenari esker gauzatzen da: proiektu aitzindari eta berritzaile bat, parekorik ez duena munduan eta lau ekimen biltzen dituena: lehenik, kultura garaikidearen nazioarteko zentro bat (Tabakaleraren kultur proiektua); bigarrenik, nazioarteko zinema-jaialdi bat (Donostia Zinemaldia); hirugarrenik, pentsamendu, ikerketa, jardun esperimental eta berrikuntza pedagogikorako nazioarteko zentro bat (Elias Querejeta Zine Eskola); eta laugarrenik, filmoteka nazional bat (Euskadiko Filmategia). Eraikinaren ekosistemak, beraz, zinemaren iragana, oraina eta etorkizuna batzen ditu, eta ikuspegi integral batetik, gainera, zinemagileen komunitatea babesten baitu, erakundeekin partekatutako proiektuen medioz. Erakundeok urteetan zehar beren lanbide-jardunaren ondorioz eskuratutako berariazko ezagutzen ekarpena egiten dute.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## 365 eguneko zinemaldi bat




Cande Lázaro, Lucy Kerr, Felipe Gálvez, Marieke Elzerman, Maria Elorza eta Mikele Landa, Ikusmira Berriak programaren hamargarren edizioko zinemagileak.

Z365 eremuak askotariko proiektuak biltzen ditu. Prestakuntza-proiektuen artean **Elías Querejeta Zine Eskola** bera dago. Proiektu partekatua da, kontzeptu gisa eratu zenez geroztik bertatik, eta Zinemaldiak modu askotan hartzen du parte EQZEn: zuzendaritza akademikoan sartzetik, zinema-jaialdien errealitatera hurbilketa teoriko-analitiko-esperientziazkoa leku pribilegiatu batetik egiteko jomuga duen gune propio bat izatera: Donostia Zinemaldia abiapuntu eta aztergai gisa paradigma-aldaketaren une historiko batean. Horrela, eskolan dauden irakasle, ikasle eta profesionalekin batera, erantzun kolektiboa eman nahi zaio galdera bati: Donostia Zinemaldia zer izan da, zer da eta norantz doa? Bigarren prestakuntza-proiektua **Zinemagileen arteko Elkarrizketak** da, Koldo Mitxelena Kulturunearekin lankidetzan antolatua, eta ekimen horri esker, urteko euskal eta espainiar zinemaren berrikuspen lasaiagoa egin ahal da haren protagonisten eskutik, herritarrak hartara hurbiltzeaz gain prestakuntza-ikastaro baten bidez.

Talentu berriak prestatzeko eta bilatzeko programa mistoen artean **Nest** saila dago, Zinemaldiak eta Tabakalerak elkarrekin antolatua, mundu osoko zinema-ikasleen karrera-amaierako proiektuen film laburren lehiaketa gisa. Orobat, atal honek prestakuntza-topaketa ere izateko jomuga sendoa du, zinemagileekin haien sormen-prozesua partekatzeko hizketaldiak ad hoc antolatzen baitira.

Proiektuak garatzeko programarik garrantzitsuena **Ikusmira Berriak** da, Zinemaldiak, Tabakalerak eta Elias Querejeta Zine Eskolak elkarlanean antolatua; gaur egun hamargarren  ediziora iritsi da Ikusmira Berriak, eta zinemagileek eskaintzen dituzten baliabideei eta aholkularitzari esker, nazioarteko egonaldi-programen artean ondoen baloratutako bat da. Ikusmira Berriak-en hamargarren urteurrena dela eta, bere webgune berriak Magdalena Orellana zuzendariak sortutako 14 bideo-kapsula txiki argitaratu ditu urtean zehar. **Film-egunkariko gisa**, egoitzan parte hartu duen zinemagileek haien memoria eta loturak konpartitu dituzte: Jaione Camborda, Grigory

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## 365 eguneko zinemaldi bat




Kabia gunearen ikuspegi orokorra Donostia Zinemaldiaren 72. edizioan.

Kolomytsev, Helena Girón eta Samuel Delgado, Manuel Abramovich, Maider Oleaga, Xacio Baño, Aitziber Olaskoaga, Elena Martín Gimeno, Maider Fernández Iriarte, Mikel Gurrea, Kiro Russo, Elena López Riera, Nele Wohlatz eta Raven Jackson. Bestalde, Donostia Zinemaldiaren 72. edizioan, Ikusmira Berriak programatik igaro diren 20 zinemagile baino gehiago bildu zituen topaketa bat egin zen, eta Ander Pérez de Arenaza ilustratzailearen diseinuarekin elastiko egin ziren, oroigarri gisa. Azkenik, Ikusmira Berrien historia osatzen duten hamar laguni Ikusmira Berrien inguruko ahotsak, irudiak eta gogoetak bilduko dituen argitalpen batean parte hartzeko eskaintza egin zaie; liburua 2025eko udaberrian plazaratuko da.

Proiektuei dagokienez, nabarmentzekoak dira, halaber, Zinemaldiak Tabakalerarekin lankidetzan egiten dituen mentoring-programak (lehenengoa, **Noka**, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakume zinemagileen film luzeen proiektuei zuzendua) eta sailak garatzeko laborategia (**2deo Serieak**).

Sortzen ari den talentuari emandako laguntza horrek eta talentu horiei proiektuak garatzen lagun egiteak talentu zinematografiko integrala babesteko sistema bat eratzeko jomuga du: sistema hori ez da mugatzen proiektu bat ekoiztea eta ikusaraztea erraztera; aitzitik, zinemagileak denboran zehar modu iraunkorrean prestatu, lagundu eta babesteko xedea ere badu. Ikasgeletatik hasi eta filmak erakutsi arte ematen da babesa, zinemagile berriak ezagutaraztea gain, karrera egiten eta zinema-arloan bizitza profesionala garatzen laguntze aldera.

Asmo horrekin, 2023. urtean **Kabia** sortu zen: Donostia Zinemaldian dauden talentu berriek (New Directors eta Nest sailetako lantaldeak, Ikusmira Berriak programako egoiliarrak…) eta Tabakalera eraikinean bizi den komunitateak (Nokan hautatutako zinemagileak, Elias Querejeta Zine Eskolako ikasleak...) leku berean elkartzeko aukera dute, ideiak trukatu eta proiektuak partekatzeko. Era berean, industriako profesionalekin hitz egiteko aukera eman nahi zaie; duten profilengatik *ad hoc* hautatzen dira profesionalok (ekoizpena, jaialdi-programazioa, funtsak eta dirulaguntzak, laborategiak, salmentak, etab.) eta ibilbide profesionalari eta zinema-proiektuei buruzko *feedback* baliotsua eman diezaiekete.

Dibulgazio-programen artean, nabarmentzekoa da, batetik, **Zinemaldia + Plus** fokuarekin Tabakalerako pantaila partekatuan parte hartzen duela Zinemaldiak (zehazki, urte osoko lehiaketaren lan-ildoetako film eta proiektu estrategikoak programatzen ditu); eta, bestetik, ***Zine*** euskal zinemaren ikasketen aldizkari akademikoaren Argitalpen Kontseiluan, batera antolatzea eta parte hartzea.

Aipamen berezia merezi dute 2022-2023an Donostia Zinemaldiaren iragana aztertzeko eta etorkizuna analizatzeko helburua duten zeharkako bi proiektuek: batetik, **Artxiboa** dugu, lehiaketaren artxibo bizi historikoaren inguruko ikerketa; eta bestetik, **Pentsamendua eta Eztabaida**, Zinemaldiaren etorkizuneko jarduketa-ildoak analizatu eta horiei aurrea hartzeko xedea duen ekimena.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Artxiboa



Harri Fernández, Carlos F. Heredero eta Sonia García López, José Ángel Herrero-Velarde beken bigarren edizioan hautatutako hiru pertsonak.

2023ko urtarrilean abiatu zen Donostia Zinemaldiaren artxibo historikorako proiektuaren fase berria. **Artxiboa** webguneak 70 urte baino gehiagoko historia biltzen du eta azken lau urteotan egindako kontserbazio-, katalogazio- eta digitalizazio-lanak egin ondoren, jada errealitatea da eta, historian lehen aldiz, guneak ateak ireki zituen aurrez aurreko kontsultarako, berme profesional guztiak emanez. Lehiaketaren iraganaren inguruko azterketa eta pentsamendua suspertzeko eta aberasteko asmoz, Artxiboak **José Angel Herrero-Velarde ikerketa-bekak** jarri zituen martxan eta egindako bi edizioetan bederatzi ikerketa akademiko bildu ditu, Zinemaldiaren historiari buruzko begirada, ezagutza eta gogoeta berriak elikatzen dituztenak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamentuak sustatzen ditu bekak.




Entzun **Zinemaldia Podcast**-en #29 zenbakia eta aurreko beste hainbat kapitulu; Donostia Zinemaldian gertatzen diren zenbait gauzaren soinu-inbentarioa da Zinemaldia Podcast.

## Pentsamendua eta Eztabaida

2020an sortu zenetik, Pentsamendu eta Eztabaida arloak gaiak, formatuak eta pertsona garrantzitsuak identifikatzeko xedean ipini du arreta, kultura zinematografiko garaikideak eta zinema-jaialdien nazioarteko zirkuituak dituzten erronka eta kezka nagusien inguruko eztabaida gidatzeko eta erantzun berritzaileak garatzeko. Azken lau urteotan, arloak bi gai izan ditu ardatz: batetik, ekitaldi iraunkorrago batera iragaitea; bestetik, generoaren eta aniztasunaren aldagaiak nola lan prozesuetan hala Zinemaldiaren edukietan txertatzeko lana.

Gai horiek Elkarrizketen saileko programa publikoaren bidez hezurmamitzen dira; industriaren, sormenaren eta prestakuntzaren ikuspegitik zinemari buruzko elkarrizketa sustatzeko gune bat da Elkarrizketak. Sailak Tabakaleran du egoitza (Zinema Aretoa eta Z Aretoa). Hainbat mahai-inguru eta eskola magistralez osatuta dago, eta Zinemaldiaren bederatzi egunetan aukera ematen dute horiek zinemagileen sormen-prozesuetan sakontzeko edo zinema-industriaren joerak eta erronkak aztertzeko. Halaber, eztabaida sozial nagusiek zineman duten eraginari buruz eta gai horietan jaialdiek duten erantzukizunari buruz eztabaidatzeko gunea ere da.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Elías Querejeta Zine Eskola



Elías Querejeta Zine Eskolako 2024-2025 ikasturteko ikasleen familia-argazkia.

Gipuzkoako Foru Aldundiak fundatua eta finantzatua, Elias Querejeta Zine Eskola (EQZE) 2017an sortu integrala duten eta errealitate zinematografiko berriak (lan-arlokoak, kontzeptualak, sorkuntza-arlokoak profesionalak) sortzeko gai diren zinemagileak agertzea sustatzeko.

Donostia Zinemaldiak zinemaren hiru garaien eskola bera kontzeptualizatu zuen lantaldean parte hartu zuen, Euskadiko Filmategiarekin eta Tabakalerako proiektu kulturalarekin batera.  Horrela, Tabakalera eraikinean zeuden ezagutzak proposamen akademiko bakar batean islatu ziren, eta proposamen horrek hiru espezialitate zituen, aurrerago Euskal Herriko Unibertsitate Publikoaren graduondoko titulu bihurtuko zirenak: Komisariotza, Artxiboa eta Sorkuntza.

Zinema-jaialdi batek eskola baten sorreran parte hartzeak bulkada bikoitz bati erantzuten zion hasieratik.

Alde batetik, Elias Querejeta Zine Eskolak abiadura geldoago eta akademikoago bat ahalbidetzen zuen, bere iragana, oraina eta etorkizuna analizatzeko, zinema-jaialdien azterketaren testuinguruan. Hausnarketa horretatik sortu zen, adibidez, *Z70: historia posible guztiak* proiektua, zeina 2022an Artxiboa bihurtu baitzen.

Bestetik, eskolan parte hartuz, Zinemaldiak aurretik abian jarritako proiektuetan sakontzen jarraitu nahi zuen. Proiektu horiek zinemagileei, profesionalizaziorako bidean, babesa eta laguntza emateko helburua zuten, eta horien artean daude Nest saila (zinema-ikasleen nazioarteko topaketa), Ikusmira Berriak proiektuak garatzeko egonaldi-programa, Kabia talentu berriei eskainitako ekitaldia eta New Directors, Zinemaldiko atalik nabarmenenetako bat, zinemagileen lehen eta bigarren lanak biltzen dituena. Eskolak zinemagileei ikasgelatik mundu profesionalera igarotzeko prozesuan lagun egitearekin lotuta hutsik zegoen gune hori bete zuen.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Elías Querejeta Zine Eskola

Gaur egun, Zinemaldia eskolaren zuzendaritza akademikoko kide da Tabakalerarekin, Euskadiko Filmategiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. Horrez gain, berezko tarte bat ere badu, zinema-jaialdien errealitaterako hurbilketa teoriko-analitiko-esperientziala egiteko jomuga du irakasgaiak, eta leku pribilegiatu batetik, gainera: Donostia Zinemalditik, hain zuzen, paradigma-aldaketako une historiko batean abiapuntu eta aztergai gisa. Horrela, eskolan dauden irakasle, ikasle eta profesionalekin batera honako galdera honi erantzun kolektibo bat ematea da helburua: “Zer izan da, zer da eta norantz doa Donostia Zinemaldia?”.

Era berean, ohikoa da lehiaketako hainbat profesionalek Komisariotza Arloko ikasleen proiektu espezifikoak tutoretza-erregimenean hartzea eta azken hipotesiak ebaluatzeko batzordeetan parte hartzea.

Azkenik, eskolako ikasleek parte hartzeko eta lehen harreman profesionala izateko gune gisa ere planteatzen da Zinemaldia; horretarako, ordaindutako hamaika praktika-plaza eskaintzen dira, erakundearen hainbat sailetan: Komunikazioa, Web & IKT, Industria, Formakuntza (Nest), Teknika, Z365 (Pentsamendua eta Eztabaida) eta Z365 (Artxiboa).

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Zinemaldia + Plus




Artxiboaren koordinatzaile Irati Crespok, Felipe Cabrerizo historialari eta ikertzailearekin; *Battleship Potemkin* filma aurkeztu zuen Zinemaldia + Plus saio batean.

Zinemaldiak 2020. urtean sortu zuen Zinemaldia + Plus fokua, Zinemaldiak Tabakalerako pantaila publiko partekatuan parte hartzeko urteroko fokua. Foku horrek azpimarratzen du nola jartzen den harremanetan Zinemaldia zinema-sorkuntzarekin eta ikusentzunezkoen industriarekin, lurraldearekin eta integratzen den komunitatearekin; hori guztia modu zabal batean egiten du bai egutegiari, bai formatuari dagokionez, emanaldien programen bidez, mahai-inguruen bidez, mintzaldien bidez, erakusketa-elkarrizketen bidez eta beste bitarteko batzuen bidez.

Hala, Zinemaldia + Plusek honako hauek hartu ditu 2023-2024 ikasturtean, besteak beste: Zinemaldiaren elkarrizketak Zinemaldia Urte Osoan (Z365) delakoaren programekin (hala nola Artxiboa), Pentsamendua eta Eztabaida saileko ildo estrategikoak (esaterako, generoa eta jasangarritasuna) eta Donostia Sarien filmografiarekin jada ohikoa den ekitaldia.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Zinemaldia + Plus

### 2023-2024 ikasturteko programa

**Abenduak 2.** The Watermelon Woman: Cheryl Dunye

- **The Watermelon Woman** (AEB, 1996) / Cheryl Dunye (AEB)

**Otsailak 10.** Come with Me to the Cinema – The Gregors: Alice Agneskirchner

- **Komm mit mir in das Cinema – Die Gregors / Come with me to the Cinema - The Gregors** (Alemania, 2022) / Alice Agneskirchner (Alemania)

**Apirilak 6.** Un pequeño plan... como salvar el planeta: Louis Garrel

- **La croisade / The Crusade (Un pequeño plan... como salvar el planeta)** (Frantzia, 2021) / Louis Garrel (Frantzia)

**Ekainak 22.** Potemkin korazatua, Sergei Eisenstein

- **Bronenosets Potyomkin / Battleship Potemkin (El acorazado Potemkin)** (SESBB, 1925) / Sergei Eisenstein (Errusia)

**Irailak 7.** Donostia saria: Pedro Almodóvar

- **Extraña forma de vida / Strange Way of Life** (Espaina, 2022) / Pedro Almodóvar (Espaina) - Film ertaina
- **La voz humana / The Human Voice** (España, 2020) / Pedro Almodóvar (Espaina) - Film ertaina
- **La concejala antropófaga / The Cannibalistic Councillor** (Espaina, 2009) Pedro Almodóvar (Espaina) - Film laburra

**Irailak 14.** Donostia saria: Cate Blanchett

- **Notes on a Scandal** (Erresuma Batua, 2006) / Richard Eyre (Erresuma Batua)

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Zinemagileen arteko elkarrizketak



Programa honek film bat produzitu eta egiteko prozesuan ikusten ez diren alderdiak hobeto ulertzeko gakoak eman nahi dizkie zinemazaleei. *Zinemagileen arteko elkarrizketak* ekimenak sorkuntza zinematografikoaren barruko historiaren berri ematen du elkarrizketa-formatu arin batean. Elkarrizketa guztien ideia nagusia da zinema lanbide kolektibo bat dela. Zinemagile bakoitzarekin batera harekin hainbat arlotan (muntaketa, interpretazioa, gidoia, ekoizpena, etab.) lankidetzan aritu ohi den pertsona bat egongo da, edota beste zinemagile bat, belaunaldi berekoa dena edo abiapuntu edo kezka formal edo tematiko berberak dituena.

Zinemagilearen begirada bakarra deszentralizatzeaz gain, programaren xedea honakoa da, proiektu baten garapena osatzen duten lanbide tradizionalenak ezagutzera ematea eta, ondorioz, zinema modu kritikoan ikusten eta irakurtzen ikastea, horren inguruabarrak norabide guztietan aldarazten ari diren testuiguru batean.

Saio guztiak 19.00etan egin dira, Koldo Mitxelena Kulturunearen Santa Teresa Komentuko ekitaldi aretoan.

# Z365, urte osoko Zinemaldia

## Zinemagileen arteko elkarrizketak

Este ha sido el programa de su tercera temporada:



Taldean zuzentzea. **Negu Hurbilak Kolektiboa** (2024/01/09)



Zinea eta beste diziplina batzuk. **Víctor Iriarte eta Carlos Muguiro** (2024/02/13)



Opera prima bat errealizatzea. **Elena Martín, Laura Ferrés eta Javier Macipe** (2024/02/27)



Literatur egokitzapenak: **Isabel Coixet eta Sara Mesa** (2024/03/07)



Animazioa: **Isabel Herguera eta Pablo Berger** (2024/04/05)



Zinea idaztea: **Belén Funes eta Marçal Cebrián** (2024/05/07)




Pelikula bat ekoiztea: **J.A. Bayona eta Belén Atienza** (2024/06/04)

# 72. edizioko 72 irudi

Oharra: Memoria honen argazkiak honako argazkilari hauek egin dituzte: Álex Abril, Ibai Arrieta, Pablo Cifuentes, Jorge Fuembuena, Gari Garaialde, Pablo Gómez, Nora Jáuregui, Ángela Losa, Iñaki Luis, Adrián Perea eta Ulises Proust.



Penélope Cruz Javier Bardemi laguntzen Kursaaleko alfonbra gorrian, Donostia Saria jaso baino minutu batzuk lehenago; aktoreak ezin izan zuen saria jaso 2023an, Hollywoodeko gidoigile eta interpreteen grebaren eraginez.



Une komiko bat Donostia Zinemaldiaren 72. edizioaren inaugurazio-galan. Berto Romero eta Andreu Buenafuente umoristek zuzendu eta aurkeztu zuten inaugurazio-gala, Bárbara Goenagarekin batera.



“Interpretazioak egiarekin eta zintzotasunarekin du zerikusia; gezurra esatearen edo manipulatzearen guztiz kontrakoa da”, esan zuen Bardemek Juan Carlos Corazza irakaslearen eskutik golardoa jasotzean, Mónica eta Carlos Bardem anai-arrebek lagunduta.




Audrey Diwan zinemagilea, inaugurazio-filmeko aktoreez lagunduta: Noémie Merlant, Will Sharpe, Chacha Huang eta Jamie Campbell Bower. “*Emmanuelle* ez da egokitzapen bat, plazerari buruzko azterketa bat baizik”.




"Hiru hitzetan? Nire lehen esperientzia izugarria izan da", dio Anton Álvarezek (C. Tangana), irudiaren eskuinaldean, besoa luzatuta duela, *La guitarra flamenca de Yerai Cortés* filmeko protagonistarekin batera (New Directors saila ireki zuen filmak).




Laura Mara Tablón eta Catalina Vergara (ezkerrean) ekoizleak eta María Alché aktorea José Luis Torres Leiva zuzendari eta Horizontes Latinos sailari hasiera eman zion *Cuando las nubes esconden las sombras / When Clouds Hide the Shadow* filmaren egilearekin batera: "Maite duzun pertsona bat galtzen duzunean, giza harremanen garrantziaz jabetzen hasten zara".



“Jaialdi honetako ikus-entzuleak edonork nahiko lituzkeenak dira. Ez dira ikus-entzule leunak eta horrenbestez, ez dago film gogor bat hemen erakustea baino hoberik”, Marité Ugás eta Mariana Rondónek, *Zafari* pelikularen (Horizontes Latinos) gidoigileak eta zuzendariak, hain zuzen ere.



Mati Diop *Dahomey* filmaren (Zabaltegi-Tabakalera sailaren inaugurazio-filma) zuzendariak bideokonferentziaz hitz egin zuen: “Nik banekien Afrikako arte guztia Europako museoetan zegoela, baina ez nintzen jabetu zer esan nahi duen horrek. Filma nire lehengoratze-ekintza da”.



“Inork ez du eskubiderik beste inor sailkatzeko, guk geuk erabaki behar dugu zer izan nahi dugun edo zer egin nahi dugun”, aldarrikatu du Jacques Audiardek –*Emilia Pérez* filmaren zuzendariak–, Karla Sofia Gascón aktorearekin batera.



Adam Elliot, *Memoir of a Snail* filmaren zuzendaria (Perlak): “Zinema mihise zoragarri bat da, zure emozioak margotzeko balio dizuna. Pelikula hau filmatzea esperientzia katartikoa izan da”.




“Oroimenik gabeko herrialde batek ezin du bere etorkizuna imajinatu, ez baitu garapen-alternatibak ezagutzeko aukera, ezjakintasunera kondenatuta dago, ahanzturara, bere potentziala minimizatzera”, deritzo Walter Sallesek, *Ainda estou aqui / I’m Still Here* filmeko zuzendariak (Perlak sailean barne hartua).




Nico eta Iñaki Williams futbolariak, Raúl de la Fuenteren *Los Williams / The Williams* Zinemira sailaren inaugurazio-filmeko protagonistak.




“Martín-Santos ez da eleberri bakar baten egilea, bere obrak alderdi asko ditu”, uste du Joan López Lloretek (irudiaren erdiko gizon betaurrekoduna), *Tiempo de silencio y destrucción* filmaren zuzendariak (Made in Spain sailaren inaugurazio-filma). Zuzendaria Luis Martin-Santosen seme-alabekin eta filmaren ekoizleekin ageri da.



Milaka ikaslek izan zuten egunero Belodromoan *Alan giza antena / Little Allan - The Human Antenna* filma ikusteko aukera, baita kanpo-espazioarekin lotutako aurkezpen batean egoteko ere.



“Arreta jazarpenaren biktiman ipintzen jarraitzen dugu oraindik, baina erasotzailean jarri beharko genuke”, esan du Iciar Bollainek –*Soy Nevenka / I Am Nevenka* (Sail Ofiziala) filmaren zuzendariak–, benetako Nevenka Fernándezi besarkatuta, Isa Campo gidoigilearen, Mireia Oriol aktorearen, Urko Olazabal antzezlearen eta Koldo Zuazua ekoizlearen aurrean.




Edward Berger, *Conclave*ren –Sail Ofizialean bildutako filmaren– zuzendaria: “Hau ez da erlijioari buruzko filma, ateak itxita gertatzen diren botere-jokoei buruzkoa baizik”.




Guy Maddinek, Evan Johnsonek eta Galen Johnsonek zuzendutako *Rumours* filmaren emanaldi bereziaren aurretik, Donostia Saria jaso zuen Cate Blanchettek Alfonso Cuarón zinemagilearen eskutik, eta haren lagun George Clooneyk zoriondu egin zuen ezusteko bideo dibertigarri batean: “Hor egon nahi nuke, benetan, baina ezin dut, oraintxe Venezian nagoelako, eta edaten ari naiz. Gainera, ez dut galtzarik gainean. Baina galtzak izango banitu eta ez banengo Venezian edaten, orduan hor izango nintzen eman dizuten golardoa kopa batekin ospatzeko. Zorionak”.



“Lumière ez da arkeologia. Lumière zinema da”, dio Thierry Frémaux Cannesko zinemal-jaialdiko eta Institut Lumièreko zuzendarii eta *Lumière, L’aventure continue / Lumiere! The Adventure Continues* filmaren egileak (Sail Ofizialeko emanaldi berezietako bat).




Belkis Bayrak zuzendari turkiarra, *Gülizar / Gulizar* (New Directors) lanaren egilea, Kafea gunean elkarrizketatua: “Trauma ez da ikusten, ikusezina da, gainerakoekin atseginagoak izan beharko genuke”.



Horizontes saria Luis Ortegak zuzendutako *El jockey / Kill The Jockey* filmarentzat izan zen. Úrsula Corberó, Nahuel Pérez Biscayart eta Mariana di Girolamo dira protagonistak. Ortegaren hitzetan, “ez existitzearen baina zure atzetik dabiltzala sentitzearen kontzeptu hori premisa ona iruditu zitzaidan”.



Federico Luis zinemagileak –*Simón de la montaña / Simon of the Mountain* (Horizontes Latinos) film luzearen eta *Cómo ser Pehuén Pedre / How to Be Pehuén Pedre* (Zabaltegi-Tabakalera) film laburraren egileak– Lorenzo Ferro eta Pehuén Pedre aktoreekin hitz egiten du: “Bi filmek –laburrak eta luzeak– asko hitz egiten dute elkarrekin”.



*All We Imagine as Light* (Perlak) filmaren zuzendari Payal Kapadiaren (ezkerretik bigarrena) hitzetan, “Indian, badirudi tradizioari leial eusteak emakumeentzat bakarrik balio duela: izugarri amorratzen nau horrek”.



Montxo Armendarizek (eskuinean) zuzendutako *Tasio*ren bertsio berrituak (1984) Klasikoak saila inauguratu zuen Sail Ofizialean estreinatu eta 40 urtera. Lau hamarkadatako aldea dago bi argazkien artean; biak Victoria Eugenia Antzokian atera ziren.



Euskadiko Orkestrak, SGAE Fundazioak eta Donostia Zinemaldiak Belodromoan eskainitako Kontzertua eta Emanaldia jardueraren irudia.




“Zinema-lege ausart bat behar dugu, zinema independentea, berdintasunezkoa, inklusiboa eta askotarikoa bermatuko duena; horixe zango da gure ondarea hurrengo belaunaldientzat”, 2024ko Zinematografia Sari Nazional Maria Zamora ekoizlearen aburuz.



Pilar Palomero zinemagilea (ezkerrean), *Los destellos / Glimmers* (Sail Ofiziala) filmeko protagonistekin batera: Patricia López Arnaiz (Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorra), Marina Guerola, Julián López eta Antonio de la Torre. “Ea eztabaida bat sortzen den zainketei buruz, familia-barnean ez ezik, gure artean ere bai, gizarte gisa”, nahi du zuzendariak.



“Sortuz goazen familia garrantzitsuagoa da odolezko loturak baino”, dio *Quand vient l’automne / When Fall Is Coming* filmaren zuzendari François Ozonek, Hélène Vincent, Ludivine Sagnier eta Pierre Lottin (Taldeko Interpretazio Onenaren Zilarrezko Maskorra) aktoreak izanik protagonistak.



Damien Bonnard aktoreak Renan Artukmac eta Takeo Kodera ekoizleak ditu alboan; haiek aurkeztu zuten Kiyoshi Kurosawak zuzendutako *Hebi no michi / Serpent's Path* (Sail Ofiziala).




"Nola liteke bi emakume horiek (Hildegart eta Aurora) hain distiratsua zen zibilizazio baten eredu izatea baina dena halako basakerian amaitzea?", galdetzen dio Paula Ortizek bere buruari; *La virgen roja / The Red Virgin* (Sail Ofiziala, Emanaldi Bereziak) filmaren zuzendaria ezkerretik hirugarrena da irudian, eta Pepe Viyuela, Alba Planas, Najwa Nimri, Aixa Villagrán eta Patrick Criadorekin batera ageri da.



Wang Yinghan eta Xu Jinpeng ekoizleak, *Stars and the Moon* (New Directors) filmaren zuzendari Tang Yongkangekin (ezkerrean) batera: “Film hau film txinatar baten guztiz kontrakoa da”.



“Emakume adina amatasun daude munduan, eta beste erantzun bat aurkitu nahi genuen kontzeptu sakratu eta ukiezin horri buruz”, *La llegada del hijo / Surfacing* filmaren zuzendari Cecilia Atán eta Valeria Pivatoren hitzetan; Maricel Álvarez eta Greta Fernández dira obra horren protagonistak.




Carmen Machi –*Celeste* (Belodromoa) filmeko protagonista– agurtzen, Diego San José telesailaren sortzaile eta ekoizlearekin, Elena Trapé zuzendariarekin eta gainerako taldekideekin batera. San Joséren hitzetan, “Funtzionarioei buruzko fikzio asko egin dira, baina horietako bat ere ez da izan azken batean mehatxu iraunkor hutsa den Ogasuneko ikuskatzaile bati buruzkoa”.




“Filmak ez du fokua teknologiaren arriskuetan jartzen; aitzitik, adimen emozionalaren botereari buruzko oso istorio humanoa da”, uste du Lupita Nyong’o antzezleak; *The Wild Robot* Chris Sandersen (alkandora urdinarekin) animazio-filmeko ahots protagonista da Nyong’o jatorrizko bertsioan, eta bertsio espainiarrean, berriz, Macarena Garcíak (ezkerrean) eta Álvaro Mortek (eskuinean) ipini dituzte ahotsak.



Francisca Lewin eta Elisa Zulueta –*El lugar de la otra* (Sail Ofiziala) filmeko protagonistak–, Maite Alberdi zuzendariarekin batera: “(1955eko Txilen) emakume izate hutsagatik barkatzen zitzaien emakumeei, emakumeak kondenatzeak emakumeak ikusaraztea zekarrelako berekin. Horregatik, erotuta egongo balira bezala tratatzen zituzten eta ez zituzten entzun nahi emakumeek zergatik hiltzen zuten”.



“Arimaren barren-barrenetik sentitzen ez badugu, zertarako sortzen dugu artea?”, galdetzen dio bere buruari Joshua Oppenheimer zinemagileak, George MacKayz –*The End* (Sail Ofiziala) filmeko aktoreetako batez– lagunduta.



Albert Serra, *Tardes de soledad / Afternoons of Solitude* (Sail Ofiziala; Urrezko Maskorraren irabazlea) filmaren zuzendaria: “Barregarria iruditzen zait artelan bati jorratzen duen gaiagatik heltzea. Museoak beteta daude gerra ukitzen edo pertsonaia gaiztoak erretratatzen dituzten margolanez. Zergatik ez ditugu kentzen? Obra hor dago bere buruaren lekuko izateko, ez beste ezeren lekuko izateko”.



David Pérez Sañudo zuzendaria eta Miren Gaztañaga aktorea, *Azken erromantikoak* filmaren aktore-zerrendaren aurrean: “Erromantikoa izatea beste pertsona idealizatzetik haratago doa; existitzen ez diren edo jada ez dauden guneak eta portaerak mitifikatzea ere badakar berekin”.




Iair Said, *Los domingos mueren más personas / Most People Die on Sundays* (Horizontes Latinos) filmaren zuzendari, gidoigile eta aktorea, Juliana Gattas aktorearekin batera. Zinemagilearen hitzetan, "drama bat beti dator umore pixka batekin, drama zeharkatzeko modurik onena da, izan ere, umorea".



Isabelle Huppertek hau adierazi zuen: "Ezagutzen ez dudanak ez dit beldurrik ematen; izan ere, gustuko dut ezagutzen ez dudanean amiltzea"; Hong Sangsooren *Yeohaengjaui pilyo / A Traveler's Needs* filmeko (Perlak) protagonistak.



Mohammad Rasoulof, *The Seed of the Sacred Fig* filmaren (Perlak) zuzendaria: “Nik debekatuta daukat Iranen zinema filmatzea eta, honenbestez, pelikula hau klandestinitatearen ondorio da”.




“Andoni Luis Aduriz inspiratzaile handia da, Godarden antzera baina sukaldeetan”, Paco Plaza *Mugaritz. Sin pan ni postre* zuzendariaren ustez. Culinary Zinema inauguratu zuen filmak eta saileko saria eskuratu zuen.



Franco Nerok *Il giorno della civetta / The Day of the Owl* aurkezten du, *Italia biolentoa* atzerabegirakoan sartua. “Film haiek arrakastatsuak izan ziren telebistarik ez zegoelako. Telebistak zinema suntsitu du. Zinema pantaila handian ikusi behar da”, aldarrikatu du aktoreak Felipe Cabrerizo zikloaren koordinatzailearen aurrean.




(H)emen kolektiboak euskal zinemaren industrian lan egiten duten emakumeen talde handi bat bildu zuen Tabakalerako sarreran, familia-argazki tradizionalerako.




Joana Santos eta Inés Vaz aktoreak Laura Carreirarekin –*On Falling* filmagatik (Sail Ofiziala) Zilarrezko Maskorra ex aequo irabazi zuenarekin– batera desfilatzen: “Gaur egungo mundua deskribatu nahi genuenez, lanaren gaia serio hartzeko ardura genuen”.




“Argentinako zinemak erabateko ziurgabetasuna bizi du. Ez dakigu zenbat film aterako ditugun datorren urtean: gutxi edo bat ere ez. Ezinbestekoa da Argentinako zinema-institutuak funtzionatzen jarrai dezan, orain geldirik baitago”, aldarrikatu du Diego Lermanek, *El hombre que amaba los platos voladores* (Sail Ofiziala) lanaren zuzendariak (protagonistak Leonardo Sbaraglia, Renata Lerman eta Monica Ayos dira).



Johnny Depp, *Modi, Three Days on the Wing of Madness* filmaren zuzendaria (Sail Ofiziala lehiaz kanpo proiektatua): “Asko ikasi dut Modiglianiren jarreratik: ez zuen amore eman nahi izan, ezta bere ikuspuntuari uko egin ere”.



Marina de Tavira aktorea, *El aroma del pasto recién cortado / The Freshly Cut Grass* (Celina Murga, Horizontes Latinos) filmeko protagonista, Diego Luna aktoreak lagunduta.




Sean Bakerren hitzetan, “Ikus-entzuleek ez dute euren bertuteengatik konektatzen pertsonaiekin, beren akatsengatik baizik”; *Anora*ren (Perlak) zuzendaria Samantha Quan ekoizlearekin batera ageri da.




“Zinema argentinarra lagun dugu, senide dugu; Latinoamerikako garrantzitsuenetako bat da. Donostia Zinemaldiak beti babestu du haren industria eta bere esku dagoen guztia egingo du Zinemaldiaren programazioan eta jardueretan toki garrantzitsu bat izan dezan”, adierazi zuen Zinemaldiko zuzendari José Luis Rebordinosek zinema argentinarra babesteko ekitaldian.



Erdian, Luciano Castillo –Kubako Zinematekako zuzendaria–, *En la otra isla* zikloaren emanaldietako baten aurkezpena baino lehen; Klasikoak sailaren barnean Elías Querejeta Zine Eskolak, Euskadiko Filmategiak eta Donostia Zinemaldiak antolatu zen *En la otra isla*.



*Bound in Heaven* filmaren (Fipresci saria) zuzendari Huo Xin hasiberriaren (erdian) hitzetan, “Txinan hazi egin da emakumeek zuzendutako filmen kopurua, gero eta indar handiagoa baitute”; Piao Songrik argazkilari onenaren Epaimahaiaren saria beretu zuen film horrengatik.




*El llanto / The Wailing* (Sail Ofiziala) lanagatik zuzendaritza onenaren Zilarrezko Maskorra ex aequo beretu zuen Pedro Martín Calero zuzendariaren hitzetan, “filmak indarkeria matxistaz hitz egiten du, gizartearen gai nagusiaz, eta denok gara arazo horren erantzule”. Irudian, errealizadorea Isabel Peña gidoilariarekin eta Ester Expósito, Mathilde Ollivier eta Malena Villa aktoreekin ageri da.



“91 urte ditut, eta uste dut funtsezkoa dela guregatik eta hemen geratzen direnengatik duintasunez hiltzea, beldur edo izu arrastorik ez uztea”, dio Costa-Gavrasek –*Le dernier souffle / Last Breath* (Sail Ofiziala) filmaren zuzendariak–, Charlotte Rampling, Marilyne Canto eta Ángela Molina aktoreekin eta Michele Ray Gavras ekoizlearekin batera (eskuinean).



Eserita, Javier Giner eta Oriol Pla, *Yo, adicto / I, Addict* telesaileko (Sail Ofizialeko Emanaldi Berezia) zuzendari eta protagonista, hurrenez hurren. “Telesailean ontasunaren, afektu-sareen eta kolektibitatearen boterearen aldarrikapena dago, norbanakoaren boterea biderkatzen duen zerbait izango balitz bezala”, baloratzen du Ginerrek.



Sandra Romero (ezkerretik hirugarrena), *Por donde pasa el silencio / As Silence Passes* by (New Directors) filmaren zuzendaria: “Familia bat aukeratzen ez diren pertsonez osatutako multzo bat da; sustraiak daude, kodependentzia-sentimendu sendoa, batez ere anai-arreben artean”.




“Egungo mundu gogor, kezkagarri eta bortitz honetan, dena galduta ez dagoelako irudipenarekin atera gaitezke film honen emanalditik”, esan du Emmanuel Courcol zinemagileak, *En fanfare / The Marching Band* filmeko gidoigile Irene Muscariren eta protagonista Pierre Lottinen artean (Perlak saileko filmak Donostia Hiria Publikoaren saria beretu zuen pelikulak).



Irizar Saria Carmen Chaplinek (erdian) zuzendutako *Chaplin | Espíritu Gitano / Chaplin | Spirit of The Tramp* filmarentzat (Zinemira) izan zen: “Nire aitona Charlierentzat ijito-odola izateak asko esan nahi zuen, eta niretzat ere bai; filma egiteak kultura hori ohoratzea esan nahi zuen”.



“Bizitza, nola fikzioan hala errealitatean, konplexua da eta arrisku ugari dakartza, baina askatasunik gabe, bizitzak ez du merezi”, adierazi zuen Pedro Almodóvarrek Tilda Swintonen –*The Room Next Door / La habitación de al lado* filmeko protagonistetako baten– eskutik Donostia Saria jaso zuenean.




Espainiako Gobernuko presidente Pedro Sánchez (irudiaren erdian), Almodóvarrekin eta *The Room Next Door / La habitación de al lado* filmaren (Donostia Saria Emanaldia) ekipoarekin batera.



Mike Leigh zinemagilea, Marianne Jean-Baptiste aktorearekin batera, agurtzen Sail Ofizialeko *Hard Truths* filmaren emanaldiaren amaieran: “Bizitza komedia barregarria da, tristea eta dibertigarria aldi berean. Altxa dezala eskua hileta batean inoiz barre egin ez duenak”.



“Ikus-entzuleak modu peioratiboan tratatu ohi dira, gauza pasiboak izango balira bezala, baina ez gara pasiboak. Zinema-aretoko ikusleari duintasuna itzuli nahi diot”, dio Arnaud Desplechin *Spectateurs! / Filmlovers!* filmaren zuzendariak. (Zabaltegi-Tabakalera).




Monica Belluccik, Tim Burton bere bikotekideak ezustean lagunduta, *Maria Callas: Letters and Memoirs* (Perlak) Tom Volf eta Yannis Dimolitsas zuzendarien filma aurkeztu zuen: “Zure irudi publikoa eta zure benetako nortasuna bereizten ez badituzu, espiral arriskutsu batean sartzeko arriskuan zaude, Maria Callasi gertatu zitzaion bezala”.




“57 urte ditut eta nire ibilbidearen parte handi batek fisikoarekin izan du lotura. Horregatik kendu nahi izan ditut geruzak, nor naizen gogoratu, ez definitzea gainerakoek, nik neuk baizik, eta egiten dudanagatik baino ez”, adierazi du Pamela Andersonek, Gia Coppolaren *The Last Showgirl* (Sail Ofiziala; Epaimahaiaren Sari Berezia) filmeko protagonistak. Irudian, Coppolak argazkia atera dio aktoreari sakelekoarekin.



Nagore Aranburu, Miguel Bernardeau eta Iván Pellicer, Alauda Ruiz de Azúa *Querer* telesaileko zuzendariarekin batera (Sail Ofiziala, lehiaz kanpo): “Emakumeen aurkako sexu-indarkeria kolektiboki epaitzen dugunean, biktimak nor diren ulertzen dugu, baina gure inguruko kasu zehatzetara joaten garenean, kontzientzia kolektibo hori lausotu egiten da eta beste dilema batzuk sortzen dira”.



“Zinemagilea baino gehiago, antropologoa sentitzen naiz batzuetan; pertsonek nola jokatzen duten jakitea interesatzen zait, egiten dutena zergatik egiten duten jakitea”, esan du Paolo Sorrentino *Parthenope* (Perlak) filmaren zuzendariak, Celeste Dalla Porta aktorearekin batera.



Zorion Eguileor aktorea Galder Gaztelu-Urrutiaren *El hoyo 2* pelikularen afarian (Culinary Zinema sailari lehiaketaz kanpo amaiera eman zion filma). “Sail berri honek *El hoyo* pelikularen antzeko esperientzia eskaintzen du, baina zentzu guztietan ekintza, izu eta ezusteko gehiagorekin anplifikatua”, adierazi du zuzendariak.



*Go!azen* telesaileko talde artistikoko kide batzuk; telesailaren hamargarren denboraldia Belodromoan estreinatu zen.




Zinemazale eta autografo eta selfiak nahi dituzten pertsona ugari bilduta Todd Phillipsek zuzendutako *Joker: Folie à Deux* filmaren kartelaren azpian. 72. edizioko film sorpresa izan zen berau eta Joaquin Phoenix eta Lady Gaga ditu protagonista.




“Beti pentsatu izan dugu filmak funtzionatuko zuela erromantikotasunaren eta ilunlasunaren artean tentsioa baldin bazegoen”, adierazi du John Crowley *We Live in Time* filmaren zuzendariak (Sail Ofizialeko klausura filma, lehiaketaz kanpo), Fiona Weir casting-zuzendariaz eta Andrew Garfield protagonistaz lagundua (eskuinean).




“*Marco* fikziozko filma da baina istorioak nola kontatzen diren, egia zer den eta gezurra zer den azaltzeko balio digu. Horixe egiten zuen, hain zuzen, Enric Marcok, benetako kontakizun bat kontzentrazio-esparru batean egon zelako fikzioarekin nahasi baitzuen”, esan dute Aitor Arregik eta Jon Garañok, Eduard Fernández protagonista duen eta Perlak sailari lehiaketaz kanpo amaiera eman zion filmaren zuzendariek.



Albert Serra, Urrezko Maskorra jaso ondoren: “T*ardes de soledad* filmak badu alderdi jator bat, beste hainbat filmetan aurkitu ezin dena. Izaera ausart xamarra duen autore-zinema bakarrik ausartu daiteke edozein gairen muineraino joateko, gai hau barne hartuta (tauromakia)”.




Donostia Zinemaldiaren 72. edizioan saritutako filmetako ekipoen familia-argazkia.



**Selfis:** Lupita Nyong'o (1), Cate Blanchett (2), Penélope Cruz (3), Marianne Jean-Baptiste (4), Úrsula Corberó (5), Noémie Merlant (6), Javier Bardem (7), Johnny Depp (8), Tilda Swinton (9), Andrew Garfield (10).

**Babesle Ofizialak** - Patrocinadores Oficiales - **Official Sponsors**

rtve

eitb

**Media Partner**

M+

**Laguntzaile Ofizialak** - Colaboradores Oficiales - **Official Collaborators**

kutxabank

Cooperación Española

ANTIGUOBERRI

ARMANI
OFFICIAL BEAUTY SPONSOR

Europa Creativa MEDIA

DAMA

DIPC Donostia International Physics Center

EL DIARIO VASCO

egeda

fundación sgae

HISPANITAS

GOBIERNO DE ESPAÑA · MINISTERIO DE ECONOMÍA, COMERCIO Y EMPRESA · ICEX

Irizar

JAMONES IBÉRICOS DE ESPAÑA

KELER
DONOSTIA 1872

KELONIK
SHARP / NEC

La Perla

LOTERÍAS
Y APUESTAS DEL ESTADO

CHAMPAGNE
PERRIER-JOUËT

PROGRAMA IBERMEDIA

renfe

REPSOL

SPANISH SCREENINGS 2024

URBIL

VICHY CATALAN